

memoriapaper(ak)

DOCUMENTOS DE TRABAJO
DEL FONDO DOCUMENTAL DE LA MEMORIA HISTÓRICA EN NAVARRA

NAFARROAKO OROIMEN HISTORIKOARI BURUZKO FONDO DOKUMENTALAREN
LANGAIK

Nº 13. Zbk.

<https://memoria-oroimena.unavarra.es/informes>

Borroka baten oihartzun galduak: Iruñerriko 1970eko hamarkadako lantegien kokapena eta desagertpena

Autoría / Egileak: TURRILLAS BUENO, Edurne; SATRUSTEGI ANDRES, Imanol;
RODRIGUEZ VILLAR, Izaskun; PEREZ IBARROLA, Nerea.

Fecha de publicación / Argitalpen data: 2023/05/17



ISSN 2444-5932

Memoriaparer(ak)

- Documentos de Trabajo del Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra
- Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Fondo Dokumentalaren Langaiak
- Working papers of the Documentary Archive of Historical Memory in Navarre

Edita / Editorea:

- Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Consejo Editorial / Argitalpen Batzordea:

- Emilio Majuelo Gil
- Fernando Mendiola Gonzalo
- Nerea Perez Ibarrola
- Gemma Piérola Narvarte

Acceso / Sarbidea:

- <https://academica-e.unavarra.es/handle/2454/45318>
- <https://memoria-oroimena.unavarra.es/informes>
- <https://dialnet.unirioja.es/servlet/revista?codigo=26564>

Licencia / Lizenzia

- Attribution-NonCommercial-NoDerivatives 4.0 International(CC BY-NC-ND 4.0). <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

ISSN:

- 2444-5932

El Consejo Editorial no se identifica necesariamente todas las opiniones publicadas en esta serie de documentos de trabajo
Batzorde Editorialak ez du ezinbestean bat egiten langai hauetan argitaratzen diren iritzi guztiekin.

Laburpena:

1950eko hamarkadatik aurrera, Iruñerrian berealdiko garapen industrialak gertatu zen, eta ondorioz, hamarnaka lantegi berri eraiki zituzten. Lantegi horiek izan ziren 1960ko hamarkada bukaerako eta 1970eko hamarkadako lan-gatazken antzeztoki nagusia. Hala ere, 1980ko eta 1990eko hamarkaden ondoren, horietako asko itxi, lekuz aldatu edo multinazionalak erosi zituzten. Horrela, ahaztu egin da lantegien eta enpresa horien historia, baita leku horietan lan egin zuten pertsonena ere. Txosten honen helburua da kuantifikatzea eta mapa batean identifikatzea frankismoko hondar urteetako langile mugimenduaren lantegi eta enpresa garrantzitsuenak. Era berean, egun espazio horiei zer erabilera eman zaien identifikatu nahi izan dugu.

Hitz gakoak: Industrializazioa / langile-klasea / frankismo berantiarra / lan-gatazka

Resumen:

A partir de la década de 1950, en la Comarca de Pamplona se produjo un extraordinario desarrollo industrial, que dio lugar a la construcción de decenas de nuevas fábricas. Fueron precisamente, esas fábricas de nueva construcción el escenario principal de los conflictos laborales de finales de la década de 1960 y de la década de 1970. Sin embargo, tras las décadas de 1980 y 1990, muchas de ellas fueron clausuradas, trasladadas o compradas por multinacionales. Así, se ha olvidado la historia de aquellas las fábricas y empresas, así como la de las personas que trabajaron en estos lugares. El objetivo de este informe es cuantificar e identificar en un mapa las principales fábricas y empresas del movimiento obrero del tardofranquismo, así como analizar el uso que se ha dado a estos espacios en la actualidad.

Palabras clave: industrialización / clase trabajadora / tardofranquismo / conflictos laborales

1. SARRERA

Ikerketa honen helburua da hurbilketa txiki bat egitea 1960ko eta 1970eko hamarkadako Iruñea eta inguruetakoko errealitate industrialera. Hau da, lan honekin ezagutu nahi izan ditugu Iruñerriko langile-mugimenduan garrantzi handiena izan zuten lantegiak eta enpresak, zeukaten langile kopurua eta jasaten zituzten lan-gatazkak kontuan hartuta. Baina ez dugu soilik horiek identifikatzera mugatu nahi, beraien kokapen espaziala ere ezagutu nahi dugu eta horretarako mapa edo kartografia interaktibo batean kokatu ditugu. Horrela, mapari esker, hiria zein gune industrialen artean banatuta zegoen ikusten ahalko dugu. Era berean, zein sektoretan espezializatzen ziren ikusi eta horien guztien artean zein nabarmentzen zen aztertuko dugu. Laburbilduz, lan honen bidez zehaztu nahi dugu aukeratutako lantegien errealitatea, hots, fabrikaren sorrera eta itxiera data, kokapena, zein sektoretan aritzen ziren eta lan gatazken kausak eta langile klasea bere borrokan nola antolatzen zen ikertzea.

Ildo berean, informazio gutxiago dago hirugarren sektorearen gorakadaren eta laurogeiko hamarkadako desindustrializazioaren ondorioen inguruan, horregatik, gai hauetara zuzenduko da ikerketa hau. Horretarako, enpresa horietako antzinako fabrikek okupatutako espazioetan gaur egungo errealitatearen berri emanen dugu. Ez hori bakarrik, laurogeiko hamarkadan bigarren sektorean izan zen aldaketa ulertu ahal izateko, Nafarroan industria-birmoldaketa egon zela eta beste lurralde batzuekin alderatuta zergatik izan zen desberdina azalduko da.

Azkenik, fabrikak eta enpresak identifikatu, deskribatu eta mapan ezarri ondoren, gaur egun jarduera horiek Iruñeko hirian eta inguruetan betetzen zituzten espazio fisikoek zein leku hartzen duten aztertu nahi izan da. Industria-ondareari buruz hausnartzea eta ea modu egokian aztertu eta zaindu den ikustea. Egun leku horietan zegoen industria eta langile jarduera gogoraraziko duen ezer ote dagoen aztertuko dugu.

2. TESTUINGURU OROKORRA

Nafarroa historikoki lurralde atzerakoi eta kontserbadoretzat hartu izan da, besteak beste, XX. Mendearen hasieran alderdi eskuindarrek hauteskunde gehienetan garaipen zabalak eskuratu zituztelako, eta batik bat, 1936ko estatu kolpean Altxamendu Nazionalaren aldeko matxinoek lurralde guzira hasiera-hasieratik kontrolatu zutelako. Estatu kolpearen ondorioz errepresioa gogorra izan zen: azken kontaketen arabera 3507 hildako izan ziren (Majuelo Gil, et al., 2021; Alaffaylla Kultur Taldea, 2018 [1986]). Horrenbestez, gerra aurretik izan ziren ezkerreko mugimendu eta kultura politikoak errotik erauzi zituzten.

Alabaina, 1950eko hamarkadaren erdialdetik diktaduraren amaierara bitartean, eraldaketa sozioekonomikoak gertatu ziren erresuma zaharrean. Oso epe laburrean, industrializazio prozesu azkarra eta bizkorra bizi izan zuen eta Nafarroaren egitura sozioekonomikoa goitik behera itxuraldatu zen, ekonomia, gizarte, politika zein mentalitate mailan aldaketa sakonak ekarri zituen. Garapen industrial kapitalista hark eragin handia izan zuen iruindar langileriaren nortasunaren sorreran. Urte gutxian, jende ugari herri landatik eta ekonomia nekazari tradizionaletatik atera eta hiri industria multzoetara joandako langile bilakatu zen. Langile-klase berri hau ez zen gerraosteko langile-mugimendutik sortu beste leku batzuetan bezala, landa-eremuko emigranteak ziren, beste gabezia eta aldarrikapen batzuk zituztenak. Urte gutxitan langile klase berria sortu zen eta gizarte gatazka berriak azaleratu ziren. Prozesu konplexu hori, dagoeneko aski ezaguna da, batik bat Jose Vicente Iriarte Aresok (1995) eta Nerea Perez Ibarrolak (2017) egindako ikerketa eta liburuei esker. Azken honen aburuz, urte horietan Iruñerrian langile klase berri bat eratu zen, subjektu historiko gisa artikulatu zena eta langile identitate sozial, kultural, politiko propioa eta partekatua izan zuena.

Urte gutxitan, mugimendu sekularretatik abiatuta, langile mugimendu aktibo eta dinamikoa eratu zen. Mugimendu hura 1960ko hamarkadaren erdialdean azaleratu zen, 1965eko irailean Frenos Iruñan gertatutako

grebarekin batera, eta handik gutxira, klase borrokarako berebiziko tresna jarri zuen martxan: Langile Batzordeak (CCOO, Comisiones Obreras). Nafarroako langile mugimenduaren ezaugarri bereizgarrietako bat bere aparteko erradikaltasuna izan zen, izan ere, Espainiako Alderdi Komunistak (PCE, Partido Comunista de España) – Espainiako toki gehienetan ez bezala – oso eragin apala izan zuen eta bere ordeztu, ezkererago edo muturrerago kokaturiko alderdi iraultzaileek kontrolatu eta antolatu zuten mugimendua. Besteak beste Organización Revolucionaria de Trabajadores (ORT), Partido del Trabajo de España -PTE; lehenago PCEi -Partido Comunista de España (internacional)-, Movimiento Comunista de España/Euskadiko Mugimendu Komunista (MCE/EMK), Liga Comunista Revolucionaria/Liga Komunista Iraultzailea (LCR/LKI), Liga Comunista (LC, euskaraz batzuetan Komunisten Liga), Organización de Izquierda Comunista-Ezker Komunista Erakundea (OIC-EKE) eta Partido Comunista de España (marxista leninista) (PCEml) bezalako alderdiez ari gara (Satrustegi, 2022b). Alderdi horien jatorria, batik bat, mugimendu apostoliko sekularren erradikalizazioan eta ETAREN zatiteka *obreristetan* egon zen.

Alderdi horiek CCOOren bidez parte hartzen zuten langile mugimenduan. Laster gatazkak, aldarrikapenak eta istiluak ugaritzen hasi ziren. Iriartek jasotako datuen arabera, 1971 urterako Nafarroa Espainiako 6 probintzia gatazkatuen artean kokatu zen, eta 1973tik aurrera 4. postua eskuratu zuen; Bartzelona, Bizkaia eta Gipuzkoaren atzetik hain zuzen ere (Iriarte Areso, 1996, 124 eta 169). Gatazkek etengabe egin zuen gora eta 1973 eta 1977 artean 8 greba orokor izan ziren Nafarroan (Satrustegi, 2022a).

3. METODOLOGIA

Lan honen xedea da ikertzea Iruñerriko lantegietako gizarte eta langile-mobilizazioaren dinamika; batik bat, langile mugimenduaren parte izan ziren lantegi borrokalarienak eta aktiboak identifikatzearen eta beren kokagunea ezartzearen bidez.

Horretarako, Iruñean eta inguruetan 60ko eta 70eko hamarkadetan zeuden fabriken eta enpresen kopurua kuantifikatu da, guztira 60 inguru. Horien guztien artean garrantzitsuenak hautatu dira kartografia interaktiboan ezartzeko. Aukeraketa hori egiteko, enpresa eta fabriken jarduera, langile kopurua, bilakaera eta izandako gatazkak hartu izan dira kontuan.

Katografia interaktiboa sortzeko, IDENaren (Nafarroako Datu Espazialen Azpiegitura) tresnak erabili ditugu¹. Kontsultatu nahi den urtearen arabera eskaintzen dituen mapei esker, lantegiek eta enpresek zuten kokapena zehaztu da. Mapak dataren arabera konparatu ahal izatean, gaur egun espazio horiei ematen zaien erabilera ezagutu ahal izan da. Era berean, Nafarroako Artxibo Garaikidean (ACN-NAG) kontsulta egitea beharrezkoa izan da lantegi eta enpresa horiek zehaztasunez kokatu ahal izateko². Fabrika guztiak aurkitu eta haien azalera mapan marraztu ondoren, informazio hori guztia eta markatutako poligonoen azalera mapa interaktibo batean islatu dira.

Halaber, lantegi bakoitzean izandako lan-gatazken kausak eta ondorioak aztertu ditugu. Langileen errealitatea, bizimodua, errepresioa bizitako gatazka zein identitate eta esperientzia partekatua ezagutzeko Nerea Perez Ibarrolaren eta Jose Vicente Iriarteren ikerketa lanak erabili dira batez ere. Aldi berean, FDMHNk aztertutako lantegietako langileei egindako ahozko historiari buruzko elkarrizketa batzuk ikusi izan dira errealitate horren ezagutza zabaltearren. Kokaguneari dagokionez, bestalde, aztertutako lantegi eta enpresa horien jatorrizko kokaguneari gaur egun zer errealitate dagoen aztertu dugu, Iruñerriko desindustrializazio eta tertziarizazio prozesuaren ondorioei buruzko zertzelada batzuk emateko. Hori guzti hori lantegien

¹ Nafarroako Gobernuak. Nafarroako Geotaria. IDENA. <https://geoportal.navarra.es/eu/idena>

² Nafarroako Gobernuak. Archivo Contemporáneo de Navarra-Nafarroako Artxibo Garaikidea. Navarra Archivos. https://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Archivos/Archivo+Administrativo+de+Navarra/

argazkiekin osatu dugu. Gehienak Nafarroako Artxibo Orokorreko Fototekaren eta Iruñeko Udal Artxiboaren Fototekaren web-bilatzaileei esker eskuratu ditugu³.

4. LANTEGIEN FITXAK

| 1. A.P IBÉRICA | |
|-------------------------|--|
| Historia laburra | Automobilentzako ihes-sistemak eraikitzen zituen, Iruñean zuen egoitza. Enpresa 1964ko irailaren 14an eratu zen, garai bateko FADASA (Fabricantes Auxiliares del Automóvil S. A.) eta AEBetako Questor taldeko AP Parts Corp. Enpresaren bate egite gisa ⁴ . |
| Sektorea | Metala. (Autogintza, ihes sistemak) |
| Kokapena | Etxauri errep., 13 (Orkoien) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1972ko urtarrilean: 24 eguneko lanuztea egon zen. 1971aren amaieran, soldata-igoera lineala planteatu zuten 1972rako. Zuzendaritzak uko egin zion proposamenari, horren ondorioz, 200 langile gelditu ziren 24 egunez. Gatazka bukatu zen 14 langile kaleratuekin eta 117 langilek antzinasuna galdu zuten (Iriarte, 1995, 134). • 1973ko greba orokorrean parte hartu zuten lanuzteak eginez elkartasuna adieraztearren. |

³ Nafarroako Gobernua. *Nafarroako Fototeka*. <https://www.fototecanavarra.es/>; Iruñeko Udala. *Iruñeko Fototeka*. <https://diccionario.motorgiga.com/diccionario/ap-iberica-definicion-significado/gmx-niv15-con257.htm>

⁴ AP *Ibérica*. *Motor Giga*. *Diccionario*. Berreskuratua: <https://diccionario.motorgiga.com/diccionario/ap-iberica-definicion-significado/gmx-niv15-con257.htm>

| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> • 1975ko urtarrileko greba orokorrean parte hartu eta lanuzteak egin zituzten, horren ondorioz, langileak kanporatuak izan ziren. |
|--|---|

| 2. AUTHI-SEAT | |
|-------------------------|--|
| Historia laburra | <p>AUTHI Espainiako automobil-konpainia izan zen 1963 eta 1975 artean jardun zena. Austin eta Morris marka britainiarren modeloak ekoizteko lizentzia zeukan. 1966ko azaroaren 12an eratu zen ofizialki AUTHI, Eduardo Ruiz de Huidrobo y Alzuren buru izanik. Enpresaren arduradunek British Motor Corporation-ekin (BMC) sinatu zuten. Lantegi berri bat jartzeko leku bat bilatu zen, Nafarroako Landaben poligonoa aukeratuz. Enpresa berriak AUTHI: Automoviles de Turismo Hispano Ingleses izena hartu zuen. Lehen autoa 1966ko irailaren 30ean atera zen eta 1969an Miniaren gama handitu egin zen. 1974an sute bat izan zen lantegian eta hurrengo urtean enpresak porrot egin zuen. Ondoren SEATEk erosi zuen. 1986tik, Volkswagenek SEATen erabateko kontrola hartu zuen gaur egun arte⁵.</p> |
| Sektorea | Metala (Autogintza, autoak) |
| Kokapena | Landabengo poligonoa, E Kalea (Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1966an Authi automobil fabrika instalazioaren ondorioz, enpresak eskulan espezializatua behar zuen, eta horregatik igo behar izan zituzten |

⁵ Gran Enciclopedia de Navarra (2012). Seat-Volkswagen. *Gran Enciclopedia de Navarra*. Berreskuratua: http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=18765

| | |
|--|---|
| | <p>soldatak. Hala ere, behin plantilla finkatuta, soldatak izoztu egin ziren.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1969ko abenduan, Sindikatu Bertikaleko zinpekoek (<i>jurado</i> edo ordezkariak) dimititu zuten eta langileek demokratikoki aukeratutako 12 kidez osatutako batzorde bat aukeratu zuten. • 1970eko martxoa. Txapa atalaren zarata arazo bat zen eta batzordeak arazo hori zuzendaritzari planteatu zion. Zuzendaritzak ez zuen erantzunik eman. Ondorioz, gainerako atalek, txapa atalari elkartasuna adierazteko, martxoaren 3tik aurrera lanuzte mugagabe egitea erabaki zuten. Negoziazioek porrot egin, 15 langile kaleratu eta fabrika hiru egunez itxi zuten. Martxoaren 15ean langileek grebarekin jarraitzea erabaki zuten eta poliziak zenbait langile atxilotu zituen. Enpresaren barruko batasuna ahuldu zen eta martxoaren 18an hauteskunde sindikalak egin ziren, 56 langile aurkeztu ziren, 36 zinpeko postutarako. Eraitzen ondoren, zuzendaritzak 14 langile berriro onartu zituen eta langile 1 kaleratu zuten (Iriarte Areso, 1995, 78). • 1973ko apirilaren 3an, Manuel Fernández Marquez izeneko langile bat hil zuten Bartzelonan, apirilaren 5ean elkartasuna adierazteko Authiko langileak fabrikari kontzentratu egin ziren. • 1973ko greba orokorrean parte hartu zuten, geldialdiak eginez eta manifestazioak gidatuz. Manifestazio batzuetan fabrika okupatu zuten poliziaren oldarraldietatik babesteko. |
|--|---|

| | |
|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko abendua. 1001eko prozesuaren ondoren, Iruñeko hiri osoa geldiarazi zuten gatazka-egunak izan ziren, 1973ko abenduaren 12an eta 20an. Horren ondorioz, lau langile (Larrañeta, Olo, Vizcay eta Martorell) kaleratu zituzten abenduaren 12ko eta 20ko grebetan parte hartzeagatik (ORT, 1975, 189)⁶. Ondoren, 1974ko udazkeneko hitzarmenei buruzko borroketan eta manifestazioetan parte hartzeagatik, Angel Larrañeta abenduaren 1ean kalean tirokatu eta atxilotu egin zuten (ORT, 1975, 238). • 1974ko maiatza. Langileek, enpresako zinpekoen bitartez, indarrean zegoen hitzarmena salatu zuten. Eskaeren artean soldata igotzea eta kaleratutako hiru lagun berriz ere onartzea zeuden. Langileek ez zituzten onartu zuzendaritzak egindako proposamenak. Lanuztea maiatzaren 27an hasi zen eta zuzendaritza eta poliziaren partetik jasandako errepresioaren ondorioz, lanuztearekin jarraitzea erabaki zuten. Authiko egoeraren gogortze handiagoa gertatu zen, langileei enplegu eta soldata etenaldia ezarri baitzieten. Egoera horren aurrean, langileek Katedrala okupatu zuten behin baino gehiagotan, eta Polizia Armatuak indarkeria handiz kanporatu zituen. Ekainaren 15ean greba deitzeko saiakera bat egon zen, baina ez zen arrakastatsua izan eta enpresako zuzendaritzak hainbat eskaintza egin zizkien langileei. Horiek erabaki zuten lanera |
|--|--|

⁶ Angel MARIA Larrañetari eta Javier Martorelli buruzko informazio gehiago: <https://memoria-oroimena.unavarra.es/ficha/27277> eta <https://memoria-oroimena.unavarra.es/ficha/27573>

| | |
|--|--|
| | <p>normaltasunez itzultzea eta indarrean zegoen hitzarmenari eustea. Hala ere, soldata igotzea lortu zuten. Greba uztailaren 3an amaitu zen.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1975eko urtarrileko greba orokorrean parte hartu zuten lanuzteak eginez elkartasuna adieraztearren. |
|--|--|

1. Irudia: AUTHI



Iturria: Vista aérea del Polígono Industrial Landaben. (1969). Iruñeko Udal Artxiboaren Fototeka. AMP002653.

2. BENDIBERICA

| | |
|-------------------------|--|
| 2. BENDIBERICA | |
| Historia laburra | <p>Sozietatea Iruñeko Urra, S.A.E. eta Bartzelonako Automoción, S.A. konpainien bat-egitetik sortu zen 1966ko urtarrilaren 1ean. Konpainia horiek balaztatze-ekipoak fabrikatzen zituzten, AEBetako Ben-dix Corp eta Frantziako Soci t  Anonyme D.B.A. enpresen partaidetzarekin. Bi urte geroago, Bartzelonako Servomecanismos, S.A. konpainia sartu zen sozietate berrian. Enpresa hori serbodirekzioen fabrikazioan</p> |

| | |
|-------------------------|---|
| | espezializatuta zegoen, eta Britainia Handiko Adnest Group Ltd enpresaren partaidetza izan zuen. Hala, egungo egitura osatua geratu zen ⁷ . |
| Sektorea | Metala (Autogintza, balaztak) |
| Kokapena | Gipuzkoa Etorbidea, egungo Buztintxuri (Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1974ko abendua. 1974ko udazkena garai gatazkatsua izan zen, 1975eko urtarrilaren 15eko greba orokorrarekin maila gorenera iritsi zena. Abenduaren hasieran greba ugari egin zirela aprobetxatuz, Nafarroako CCOOetan erabaki zen 11rako borroka-jardunaldi orokor baterako deialdia egitea, eta langile eta herri erakunde guztiak gonbidatu zituzten. Greban aldarrikapen ekonomikoak, sozialak eta politikoak batu ziren. Errepresio sindikal eta politikoa egon zen eta lan-gatazka bide publikoan sartu ziren itxialdi eta manifestazioen bidez. Iruñea aldean gelditu ziren enpresak 70 izan ziren guztira, horien artean Bendibérica. • 1975eko urtarrila. Urtarileko greba orokorrean parte hartu zuten lanuzteak eginez. Horren ondorioz, fabrikatik kanporatuak izan ziren. |

⁷ *Bendibérica.* Motor Giga. Diccionario. Berreskuratua: <https://diccionario.motorgiga.com/diccionario/bendiberica-definicion-significado/gmx-niv15-con193147.htm>

2. Irudia: Bendiberica




Iturria: Vista aérea de las instalaciones industriales de Bendiberica en Pamplona. (1966) Nafarroako Artxibo Orokorreko Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3840

| 3. CHALMETA | |
|-------------------------|---|
| Historia laburra | Udalak Chalmeta fabrika zaharra Irakasle Eskola Publikoa eraikitzeko erabili behar zuenean, Gobernuak lursail horiek desjabetu zizkion Udalarari eta Opus Deiri eman zizkion bere Arkitektura Eskola pribatua altxatzeko. 1975ean etxebizitza libreko proiektuak onartu ziren, eta bertan Chalmeta, S.A. etxetresna elektrikoek fabrikako industria-nabeak eraitsi ziren, Nafarroako Unibertsitateko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa eraikitzeko ⁸ . |
| Sektorea | Metala (Etxetresna elektrikoak) |

⁸ HABITABILIDAD, F. P. D. L. V. S. D. (1975). Aprobación de proyectos de vivienda libre. Obra nueva. Escuela Técnica Superior de Arquitectura de la Universidad de Navarra previo derribo de naves industriales de la fábrica de electrodomésticos Chalmeta, S.A. Expedientes de edificación de vivienda libre (Expedientes de vivienda libre). (ES/NA/AACF/1/002/E13/E13.02/1673/634935). Nafarroako Artxibo Orokorra.

| | |
|-------------------------|--|
| Kokapena | Nafarroako Unibertsitatearen Campusa, egungo Arkitekturako Goi Eskola Teknikoa (Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1970eko otsailaren 28an. Lantegian krisi-espeditentea ireki zen, langileak soldatarik gabe zeuden eta kaleratzeak eman ziren. Horrek guztiak eragin izan zuen langileen lanuzteak, diru bilketak eta manifestazioak zeinetan indarkeria eta karga polizialak presente ziren. Apirilaren 5ean, Aurreikuspen Institutu Nazionalak langabezia-asegurua ordaintzea onartu zuen. Apirilaren 23an Magistraturak kaleratzeak eta kalte-ordainak onartu zituen. Azkenik, fabrikak aseguruak eta kalte-ordainak ordaindu zituen eta langileak beste lantegi batzuetan sartu ziren: Imenasan, Nortonen, Indecasan eta Estebanen. |

3. Irudia: Chalmeta



Iturria: Vista aérea de las instalaciones industriales de Aitona, Chalmeta S.A., de Pamplona. (1966) Nafarroako Artxibo Orokorren Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3820.

| 4. EATON IBERICA | |
|-------------------------|--|
| Historia laburra | 1961ean ezarri zen Nafarroan, Iruñeko TRACSA enpresarekin lehen harremanak izan ondoren. Bi urte geroago, Eaton Corporationek TRACSA-n % 20ekin parte hartzea erabaki zuen, laguntza teknikoa emanaz eta lizentziak lagatuz. 1964an Eaton Ibérica SA izena hartu zuen, eta 1971tik aurrera Eaton SA. 1987an bere kapital sozialaren 99,43 Eaton BV sozietate holandarraren jabetzakoa zen, Eaton Corporation multinazional iparramerikarraren mendekoa ⁹ . |
| Sektorea | Metala (Autogintza: kamioi-ardatzak, talde-diferentzialak eta abiadura-kaxak). |
| Kokapena | Landabengo poligonoa, E kalea, (Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1969ko maiatza. Maiatzaren 14an 600 langilek lan kontuengatik gelditzea erabaki zuten batzarrean. Eskarien artean, hileko soldata igoera eskatzen zen kategoria guztietarako. Era berean, langabezia utzitako 300 pertsonen onarpena berriro lortu zen. Akordioa langileen aldekoa izan zen zuzendaritzak arriskuan ikusten zuelako enpresaren egoera momentu berean Super Ser enpresan gatazkak gertatzen ari zirelako (Iriarte Areso, 1995, 70-71). • 1971ko urtarrila. Gatazka urtarrilaren 8an hasi zen, soldatak eta lan-baldintzak hobetzeko eskaeren ondorioz. Enpresa jarduera etenik zegoen eta negoziazio saiakera batzuen ondorioz, urtarrilaren |

⁹ Gran Enciclopedia de Navarra (d. g.). *Eaton Ibérica*. Gran Enciclopedia de Navarra. Berreskuratua: http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=8293

| | |
|--|---|
| | <p>17an, 495 langilek kaleratze-gutun bat jaso zuten. Lan-magistraturak kaleratzeak epaitu ondoren, fabrikako batzarrak galarazi eta 47 eguneko grebaren ondoren, enpresak lanera sartzea eskaini zuen, zigorrik gabe eta kaleratzerik gabe. Hasieran, langileek ez zuten proposamena onartu eta langileen biltzarrak poliziaren presentzia eragotzi zuen. Hori dela eta, lanera itzultzea erabaki zuten, soldata igoera eta larunbatetan lanik ez egiteko lorpenekin (Iriarte Areso, 1995, 118).</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko apirilaren 3an, Manuel Fernández Marquez izeneko langile bat hil zuten Bartzelonan, apirilaren 5ean elkartasuna adierazteko langile guztiek ordu batez lanuztea egin zuten (ORT, 1975, 128). • 1973ko greba orokorrean parte hartu zuen lanuzte orokorrak eginez. |
|--|---|

4. Irudia: Eaton Iberica



Iturria: Eaton S.A enpresaren argazkia. Gran Enciclopedia de Navarra berreskuratuta 2022/06/08an.

5. Irudia: Eaton Ibericaren airetiko bista



Iturria: Vista aérea de las instalaciones industriales de Eaton Ibérica en el polígono de Landaben en Pamplona. (1972). Nafarroako Artxibo Orokorraren Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3779.

| 5. FRENOS IRUÑA | |
|-------------------------|---|
| Historia laburra | Frenos Iruña 1958an sortu zen. Lantegia 2005ean eraman zuten Atarrabiako etorbidetik Ezkirotz industrialdera ¹⁰ . Gaur egun, Frenos Iruñak galga-sistemaren elementuak edo osagaiak diseinatu, garatu eta egiten ditu, bai automobilentzat, bai errepidetik kanpoko ibilgailuen merkatuentzat (traktoreak, hondeamakinak, dumperrak, orga jasotzaileak, basogintzako makinak eta, oro har, obra publikoekin eta nekazaritzarekin lotutako ibilgailuak) ¹¹ . |
| Sektorea | Metala (Autogintza: balaztak) |

¹⁰ N. (2005/IV/4). Frenos Iruña invierte 8 millones en instalaciones y equipos en su nueva planta. Navactiva. Berreskuratua: <https://navactiva2013.wordpress.com/2005/04/04/frenos-iruna-invierte-8-millones-en-instalaciones-y-equipos-en-su-19629/>

¹¹ Frenos Iruña/Iruña Brakes (2023). Company. Berreskuratua <https://irunabrakes.com/es/>

| | |
|-------------------------|--|
| Kokapena | Orduan: Atarrabia etorbidean (Iruñea). Egun: Ezkirotzeko poligonoan (2. Kalea E, 9 zbk. Barbatan) ¹² . |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1965ko urriaren 22tik azaroaren 2ra. Gatazka bat izan zen primen eta denboren desorekagatik. Enpresako ordezkariak hainbat gestio egin zituzten enpresako zuzendaritzarekin negoziatzeko baina ez ziren arrakastatsuak izan. Langileek grebara iritsi aurretik geldialdi partzialak egitea erabaki zuten. Greba hasi ondoren, enpresak kaleratze-gutunak bidali zizkien lantegiko langile guztiei. Greba hori izan zen lehenengoa 1956tik, eta eragin handia izan zuen elkartasuneko berezko mugimenduetan parte hartzen zuten langileen artean. Gatazka hori langile-mugimenduaren hazkunde-une batean gertatu zen (CCOO, zehazki). Azkenik, grebalari guztiak berriz onartu zituzten (Iriarte Areso, 1995, 66-67)¹³. • 1973ko greba orokorrean parte hartu zuten eta manifestazioak eta barriadak gidatu zituzten Atarrabiako etorbidean Hifransako langileekin batera. • 1975eko urtarrileko greba orokorrean parte hartzeagatik langileak kanporatuak izan ziren. |

¹² Bidegain, M. (2021). *Patxi Ceberio, pasión sin frenos por el cooperativismo*. Navarra Capital. Berreskuratua: <https://navarracapital.es/patxi-ceberio-pasion-sin-frenos-por-el-cooperativismo/>

¹³ FDMHN-FDMHP. Martín Arbizu Goñiri egindako elkarrizketa (21/06/2016).

6. Iruña: Frenos Iruña




Iturria: Galle Gallego, J. (1963). Movimiento de personas y ciclistas en la avenida de Villava todavía sin urbanizar por completo. Fototeca del Archivo Municipal de Pamplona. U0100980.

| 6. HIFRANSA | |
|-------------------------|---|
| Historia laburra | Ehungintzako fabrika, batez ere emakumeak langile zituenena. Fabrika hartzen zuen eraikina 1990eko hamarkadan eraitsi zuten, bertako beste lantegi batzuekin batera. Bizitegi-eraikin berriak eraiki ziren, baita espazio publikoak ere, Arriurdiñeta plaza kasu, non Txantreako liburutegi berria eraiki zen ¹⁴ . |
| Sektorea | Ehungintza. |
| Kokapena | Atarrabia etorbidea, 50 (Iruña) |

¹⁴ O, A. (2018/XI/16). Calle Villafranca. *Diario de Navarra*, 32.

| | |
|--------------------------------|---|
| <p>Gatazka nagusiak</p> | <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko greba orokorrean parte hartu zuten eta manifestazioak eta barrikadak gidatu zituzten Atarrabiako etorbidean Frenos Iruñako langileekin batera. • 1975eko urtarilean egindako Greba Orokorrari elkartasuna adierazteko, langileek lanuzteak egin zituzten. |
|--------------------------------|---|

7. Irudia: Hifransa



Iturria: Calleja (1995). Diario de Navarra, 1995/8/25, 23.

| | |
|------------------------------------|--|
| <p>7. IBÉRICAS DEL FRÍO</p> | |
| <p>Historia laburra</p> | <p>Koxka izenez ere ezaguna, 1966an eratu zen, eta 1987an akziodun nagusiak Guibert eta Iriondo familiakoak ziren. Lantegi nagusia Iruñean zegoen, eta Azkoienen</p> |

| | |
|-------------------------|---|
| | (Komobol) eta Alcala de Heranesen (1974tik) beste bi lantegi zituen ¹⁵ . |
| Sektorea | Metala (Hozkailu industrial eta komertzialak) |
| Kokapena | Landabengo poligonoa, A kalea, 2 (Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | 1973ko greba orokorrean parte hartu eta lanuzteak egin. |

8. Irudia: Ibericas del Frio



Iturria: Ibérica del Frío enpresaren argazkia. Gran Enciclopedia de Navarra berreskuratuta 2022/06/08an.

¹⁵ Gran Enciclopedia Navarra (d.g.) *Ibérica del Frío*. Gran Enciclopedia de Navarra. Berreskuratuta: http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=11333

9. Irudia: Ibericas del Frioren airefiko bista



Iturria: Vista aérea de las instalaciones industriales de Koxka en el polígono de Landaben en Pamplona.(1972). Nafarroako Artxibo Orokorren Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3756

| 8. IGNACIO SORIA | |
|-------------------------|---|
| Historia laburra | 1930eko hamarkadan Ignacio Soria zegoen, elektrizitate-osagaien instalatzaile eta saltzailea, eta 60ko hamarkadan jarraitu zuen lanean. |
| Sektorea | Elektrizitate osagaien instalatzaile eta saltzailea |
| Kokapena | Landabengo poligonoa, D eta E kaleak (Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1971ko urria. IMENASako gatazkarekin bat egin zuten, eta ondorioz, lanuzte partzialak egin ziren Ignacio Sorian, egindako aldarrikapenak babesteko. Urriaren 7an akordio bat sinatu zuten enpresak sindikatuetako ordezkariekin. Urtean 15.000 pezetako igoera. • 1972an lan-etenaldiak egin zituzten elkartasuna adierazteko, A.P. IBÉRICA-n egiten ari ziren grebagatik. |

| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko apirilaren 3an, Manuel Fernández Marquez izeneko langile bat hil zuten Bartzelonan, apirilaren 7an elkartasuna adierazteko langile guztiak 2 orduz lanuztea egin zuten (ORT, 1995, 128). • 1973ko greba orokorrean parte hartu eta lanuzteak egin. • 1975eko urtarrileko greba orokorrean parte hartu eta lanuzteak egin zituzten elkartasuna adierazteko. |
|--|---|

10. Irudia: Ignacio Soria



Iturria: Vista aérea de las instalaciones industriales de Ignacio Soria S.A. en el polígono de Landaben en Pamplona. (1974). Nafarroako Artxibo Orokorren Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3967

| | |
|-------------------------|--|
| 9. INDECASA | |
| Historia laburra | Hainbat autobus mota eraikitzen zituzten: turismo, luxua, estandarra, hirikoa eta mikrobusak. 1973an fabrikak itxi zuen porrot egin ondoren. |

| | |
|-------------------------|---|
| Sektorea | Metala (Autogintza: autobusak) |
| Kokapena | Landabengo poligonoa. |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko greba orokorrean parte hartzea, Motor Ibericako langileekin elkartasunean geldialdiak eginez eta Landabengo industrialdean egindako manifestazioetan parte hartuz. • 1973an, Indecasak porrot egin eta itxi egin zuen abenduaren 20an, 240 langilek 1973ko urrian greba egin ondoren. Langileek fabrika okupatu zuten baina poliziak hustu zuen (Giménez Gil, 2012, 127). |

| 10. INDUSTRIAS ESTEBAN | |
|-------------------------------|---|
| Historia laburra | 1958an sortua, nagusiki kapital nafarrarekin. 1986an Alemaniako Achter Ebels AG multinazionalak erosi zuen. ¹⁶ Gaur egun Isringhausen Spain S.L.U da. |
| Sektorea | Metala (Autogintza: autobus eta kamioientzako eserlekuak) |
| Kokapena | Landabengo poligonoa, L kalea (Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1970eko urtarrilaren 20an¹⁷. 170 langilek gutun bat sinatu zuten zuzendaritzara eramanez soldata igoera eskatuz. Enpresaren erantzuna produkzioa handitzea izan zen. Hori dela eta, batzarrean |

¹⁶ Gran Enciclopedia Navarra (d.g.) *Industrias Esteban*. Gran Enciclopedia de Navarra. Berreskuratuta; http://www.encyclopedianavarra.com/?page_id=11570

¹⁷ E.g. (1970/II/6). Paros en distintas industrias. *Diario de Navarra*, 20. E.g. (1970/II/1). Trabajadores de Authi, Super-ser, Eaton, Indecasa, Auxiliares del Metal y Electrocromo subieron andando a Pamplona. *Diario de Navarra*, 32 eta 9.

zeuden langileek urtarrilaren 26tik aurrera modu mugagabean gelditzea erabaki zuten. Zuzendaritzaren erantzuna langileen kaleratzea izan zen. Negoziazio saiakerak egon arren, enpresak uko egin zion elkarrizketari eta itxi egin zuten. Egindako manifestazio guztiak desegin zituzten poliziek manifestarien aurka egindako kargek. Gobernadoreak presioa egin zion Estebani, ondorioz, otsailaren 9rako lan-baldintzak hobetzea lortu zuten. Ordezkarien batzordea zuzendaritzarekin bildu zen eta 10erako onartuak izango ziren oinarriak ezarri zituzten.

- 1973ko greba orokorrean parte hartu lanuzteak egiten.

11. Irudia: Industrias Esteban



Iturria: Vista aérea de las instalaciones de Industrias Esteban en el polígono de Landaben en Pamplona. (1974). Nafarroako Artxibo Orokorraren Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3951

11. IMENASA

| | |
|-------------------------|---|
| Historia laburra | <p>Imenasa Nafarroako industria sektorean liderra zen Huarte enpresa-taldeko kidea zen. 1953an sortu zen, gaur egun Yamaguchi parkea dagoen lekuan, eta handik 1988an lekualdatu zen Liebherr talde alemaniarrek erosi ondoren (Giménez Gil, 2012, 119). 1989ko azaroan, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ideia-lehiaketa baterako deialdia egin zuen Iruñeko Udalak Imenasako fabrika zaharreko lurretan eraikitzeko. Leku hau Yamaguchi parkean eraldatu zen, non gaur egun planetarioa dagoen¹⁸.</p> |
| Sektorea | <p>Metala (Askotarikoak: motorren eta autoen zatiak, garabiak, ...)</p> |
| Kokapena | <p>Barañain Errepidea, egungo Yamagutxi parkea (Donibane-Ermitagaña auzoak, Iruñea)</p> |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1968ko urtarrila. 1968ko urtarrilean Hitzarmen Kolektiboa berriro behar zen. Hitzarmena 1967ko irailetik salatu zen, enpresako langile ordezkariak aurreproiektuak aurkeztu eta bilerak izan zituzten eskaerak negoziatzeko. Langileek proposamen guztiak baztertu eta ordezkariak dimisioa eman zuten. Egoera horretan otsailaren 3ra iritsi zen, egun horretan langileek egun osoa gelditu zuten eta hortik aurrera aste osoan. Fabrikan zehar, langileen bilerek zailtasun handiak izan zituzten, lantegitik atera zituztelako eta Erakunde Sindikalak lokalak emateari uko egin ziolako. Azkenean, enpresak |

¹⁸ Gran Enciclopedia Navarra (d.g.) Planetario. Gran Enciclopedia de Navarra. Berreskuratua: http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=16856

| | |
|--|--|
| | <p>bost langile kaleratu zituen, horietako bi ordezkari, eta kalte-ordaina jaso zuten (Iriarte Areso, 1995, 68).</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1971ko apirila. Bi langile atxilotu zituzten. Ondorioz, gainerako langileek elkartasun-lanuztea egin zuten haien askatzea lortu zuten arte. Urte amaieran Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zituen apirilean atxilotu zituzten langileak. Langile Batzordeek bi orduko lanuztea eta manifestazioa deitu zituen azaroaren 25ean Cuatro Vientos inguruan. • 1971ko udan, 730 langilek 45 eguneko greba bat eragin zuten. Aldarrikapenen artean soldatarekin zerikusia zutenak nabarmentzen ziren. Enpresak legezkoak ez ziren ordezkariekin negoziatzeari uko egin zion. Batzarrean zeuden langileek lantegia gelditzea eta okupatzea erabaki zuten¹⁹. Urriaren 10etik 13ra bitartean enpresarekin negoziazioak egon ziren baina grebarekin jarraitu zuten proposamenak baztertuz. Poliziak eta zuzendaritzak langileak indarkeriaz erreprimitu arren, ez ziren lanera itzuli eta horregatik zuzendaritzak beste proposamen bat egin zuen: zigorrak kaleratzeen ordezkari eta hitzarmen kolektiboa negoziatzea eta ordezkari sindikala izendatzea. Azkenean, proposamena onartu egin zen, eta 45 eguneko grebaren ondoren, urriaren 29an lanera itzuli ziren (Iriarte Areso, 1995, 121-123). • 1973 eta 1975ko urtarrileko greba orokorretan parte hartzea. |
|--|--|

¹⁹ FDMHN-FDMHP. Félix Jiménez Morales eta José de Carlosi egindako elkarrizketa (23/08/2016)

12. Irudia: Imenasa



Iturria: Industrias Metálicas de Navarra S.A.; Imenasa. (1968, apirila). Iruñeko Udal Artxiboaren Fototeka. AMP001409.

13. Irudia: Imenasaren airetiko bista



Iturria: Vista aérea de Imenasa y sectores anejos. (1973). Iruñeko Udal Artxiboaren Fototeka. AMP002639.

12. INQUINASA

Historia laburra

Epoxi erretxinak, burdinazko kelatoak eta farmazia-industriarako, fungizidetak eta herbizidetak hainbat produktu egiten dituen enpresa da. Gaur egun

| | |
|-------------------------|---|
| | <p>Inquinasak egiten dituen epoxi erretxinak erabiltzen dira, besteak beste, etxetresna elektrikoak margotzeko, automobilen eta itsasontzien korrosioaren aurkako estaldurak egiteko, ontzien barruko aldeak lakatzeko, eta kirol-erakin eta -gaietarako, tenis- eta eski-erraketa gisa. 1941ean sortu zen eta Iruñeko Etxabakoitz auzoan du lantegia. 1987an konpainiaren kapital soziala Suitzako Ciba-Geigy multinazionalaren esku zegoen. 1987an 267 langile zituen²⁰. Gaur egun, Huntsman, Houstonen egoitza duen multinazional estatubatuarra, kontinente guztietan dagoena eta konposatu kimiko aurreratuak ekoizten dituena, Iruñean ezarri da, Inquinasak zaharreen²¹.</p> |
| Sektorea | Kimika (Nekazaritza eta farmazeutika) |
| Kokapena | Arostegi etorbidea (Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko greba orokorrean elkartasuna adierazteko manifestazioetan parte hartu zuten. • 1974ko abenduaren 11n lanuzteak egin zituzten. • 1975eko urtarrileko greba orokorrean parte hartu eta elkartasuna adieraztearren lanuzteak egin. |

²⁰ Gran Enciclopedia Navarra (d.g.) Industrias Químicas De Navarra. Gran Enciclopedia de Navarra. Berreskuratuta: http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=11572

²¹ DN Management. (2021/VII/21,)Huntsman apuesta desde Pamplona por el sector aeronáutico. *Diario de Navarra*. On-line albistea. Berreskuratuta: <https://www.diariodenavarra.es/noticias/negocios/dn-management/empresas-navarras/2021/07/21/huntsman-apuesta-pamplona-el-sector-aeronautico-494872-3380.html>

14. Irudia: Inquinasa



Iturria: Inquinasa enpresaren argazkia Gran Enciclopedia de Navarratik berreskuratuta 2022/06/08an.

15. Irudia: Inquinasaren airetiko bista




Iturria: Vista aérea de las instalaciones industriales de Inquinasa en Pamplona.(1974). Nafarroako Artxibo Orokorren Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3814.

13. MAGNESITAS DE NAVARRA

| | |
|-------------------------|--|
| Historia laburra | Magnesita minerala eta haren deribatuak erauzten, eraldatzen eta merkaturatzen dituen erreferentziatzko enpresa da. 1945. urteaz geroztik, Magnak magnesitazko aztarnategia ustiatu du Eugiko kontzejuan, Kintoa izeneko meategiak ustiatzeko hainbat kontzesioren ondorioz ²² . |
| Sektorea | Meatzaritza |
| Kokapena | Zubiri eta Eugi |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko greba orokorrean elkartasuna adierazteko manifestazioetan parte hartu zuten • 1973ko abenduaren 3an lanuzte partzialak hasi ziren Magnesitasen. Zuzendaritzak proposamen bat egin zuen langileek onartu ez zuten soldata-kopuruari buruz, eta, ondorioz, 15 egun gehiagoko lanuzte totalak egin zituzten. Horri esker lortu zuten langileek nahi zuten soldata (ORT, 1975, 185). • 1974ko abenduaren 11n lanuzteak egin zituzten. |

²² Gran Enciclopedia Navarra (d.g.) Magna Magnesitas Navarra. Gran Enciclopedia Navarra. Berreskuratua: <https://www.magnesitasnavarras.es/magnesitas-navarras/#nuestra-historia>

16. Irudia: Zubiriko Magnesitas de Navarra fabrika



Iturria: Zubiriko Magnesitas de Navarraren lantegiaren Zubiriko lantegia. Gran Enciclopedia de Navarra

17. Irudia: Magnesitas de Navarraren Meatze-Aztarnategia



Iturria: Eugiko meatze-aztarnategiko argazkia Gran Enciclopedia de Navarratik berreskuratuta 2022/06/09an

| 14. MAPSA | |
|-------------------------|---|
| Historia laburra | 1957an sortua, MAPSAk aluminiozko lehen haguna egin zuen 1977an, eta 90eko hamarkadan Mondragon Korporazioko kide izatera pasa ziren ²³ .Automobilentzako hagunak fabrikatzen zituzten. |
| Sektorea | Metala (Autogintza) |
| Kokapena | Etxauri errepidea, 11, 31160, Orkoien. |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko maiatzaren 24tik 26ra bitartean lanuzteak egin zituzten Motor Ibericari elkartasuna adierazteko. 1973ko greba orokorrean parte hartu zuten orduko lanuzteak eginez. • 1974ko abenduaren 11an lanuzteak egin zituzten (Iriarte Areso, 1986, 286-296). • 1976ko irailaren 9an langileak lantegian giltzapetu ziren enpresako zuzendaritzarekin negoziatzea lortzeko. Aldarrikapenen artean, kaleratuak berri hartzeko eta langabeziaren aurka egiteko ideia nabarmentzen zen²⁴. |

| 15. MATESA | |
|-------------------------|---|
| Historia laburra | 1956an jaio zen MATESA, ehun-makinak egiten zituen enpresa. Bere salmentak, batez ere, kanpoko merkatuetarako esportazioak ziren. Bere jarduera |

²³ A. (2018). Home. Mapsa. Berreskuratua: <https://www.mapsa.net/>

²⁴ E.g. (1976/IX/16). El conflicto de MASA, estacionado. *Diario de Navarra*, 23.

| | |
|-------------------------|---|
| | <p>industriala IWER eraikinean garatu zen²⁵. 1969an, administrazio-prozesu bat egin zen, ustezko diru-delitu bat eta ustelkeria delitu bat egotzita. 1981eko irailean, biltegirotutako ehundegi asko suntsitu ziren sute baten ondorioz, enpresa behin betiko itxi zuten. Iwer Navarra lan-sozietateak 1983an eskuratu zuen instalazioa, eta hainbat auziren ondoren, eraikina berrerabiltzen hasi zen, lokalak hainbat erabileratarako alokatuz: bulegoak, eskolak, ikasketa profesionalak, logistika eta biltegirotzea, telebista eta ikus-entzunezko estudioak... 2003an Iruñeko Udalak Iwer eraikina eraikin babestuen katalogoan sartu zuen²⁶.</p> |
| Sektorea | Ehungintza. |
| Kokapena | Marcelo Celayeta etorbidea, 75, (Iruñea). |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1969an ustelkeria kasua argitara atera zen, enpresak kreditu ofizialak jasotzen zituen baina esportazioak faltsuak ziren. Arazoa auzitegietan amaitu zen, fabrikaren enbargoarekin, diru isunekin, espetxe-zigorrekin eta azkenean 1975ean Juan Carlos I.aren eskutik indultua jaso zuen Vilá Reyes enpresaburuarekin. Langileek lan-sozietate bat osatzen jarraitu zuten beren jarduerarekin. Matesa enbargatu egin zuten, eta 1983ra arte jarraitu zuen lanean, administrazio judizialpean²⁷. |

²⁵ Sobre IWER. Edificio Iwer. Berreskuratuta: <http://www.edificioiwer.es/sobreiwer.aspx> (2022/VII/01)

²⁶ Edificio IWER. Matesa y Manufacturas Arga. (2016). Ondaregia. Berreskuratuta: <https://ondaregia.com/edificio-iwer-matesa-y-manufacturas-arga/> (2022/III/01)

²⁷ Bermejo Pastor, A. (2020/VII/29). El caso Matesa, el gran escándalo de corrupción de la dictadura. *infoLibre*. Berreskuratuta: https://www.infolibre.es/veranolibre/caso-matesa-gran-escandalo-corrupcion-dictadura_1_1185879.html (2022/VII/01)

18. Irudia: Matesa



Iturria: Zeta fabrika zaharreko erlojuaren dorrea 2015ean. Ondaregia web orritik ateratako argazkia, 2022/07/01.

19. Irudia: Matesaren airetiko bista



Iturria: Vista aérea de las instalaciones industriales de Matesa en Pamplona (1968). Nafarroako Artxibo Orokorreko Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3857

| 16. MICROMECHANIC | |
|--------------------------|---|
| Historia laburra | Micromecanic tailerrak. SA. enpresak, Jáuregui Quelbenzu anaietako hiruren jabetzakoak, lantegi bat zuen Arren, automobilgintzaren sektorerako osagai txikiak fabrikatzen zituena. |
| Sektorea | Metala (Autogintza) |
| Kokapena | Arre-Orikain errepidea (Ezkabarte) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1973an 36 egunez iraun zuen soldata igotzeko eskaera eta lan gatazka. • 1979ko irailaren erdialdean, enpresa-batzordeak hilean soldata-igoera eskatu zion zuzendaritzari. Batzordeak egindako soldatak igotzearen proposamenak ez zuen aurrera egin, eta, beraz, langileek greba mugagabea hasi zuten irailaren 24an. Hala ere, langileen batasuna hautsi eta lanuztea eten egin zen. Langileen zati bat lanera itzuli zen normaltasunez Guardia Zibilak babestuta. Enpresari negoziatzea onartzeko presioa egiteko azken ahaleginean, 21 grebalari Atarrabiako udaletxean bildu ziren azaroaren 19an. Hiru egun geroago, ETApn-ko komando batek Javier Jauregi jabea bahitu zuen. Iruñeko Txantrea auzoko zelai batera eraman zuten, eta izterretan tiro bana bota zioten. Javier Jauregiren aurkako atentatuaren ondorioz, Fapymen eta UGT, CCOO, USO eta SU |

| | |
|--|---|
| | zentralen arteko lehen harremanak hasi ziren lan-gatazkari irtenbidea bilatzeko ²⁸ . |
|--|---|

20. Irudia: Micromecanic



Iturria: Diario de Navarra, 1979/XI/24, 28 or.

| 17. MINA | |
|-------------------------|--|
| Historia laburra | Haragi-produktuen enpresa nafarra, 1867an sortua. Familia enpresa bat izan zen 1972ra arte, eta urte hartan jabeek elkarte anonimo bihurtzea erabaki zuten. Lantegiaren krisi baten ondoren, bertako langileak horren jabe egin ziren, eta 1979tik aurrera lan-sozietate anonimo bihurtu zuten. Mina izan zen Iruñeko txorizo ezaguna modu industrialean egin zuen lehen marka ²⁹ . |
| Sektorea | Elikagaiak, harakintza |
| Kokapena | Uharte |

²⁸ Goñi, F. (1979/XII/7). La dirección de Micromecanic, SA, considera imprescindible una reestructuración de plantilla. *El País*. On-line hemeroteca.

²⁹ Gran Enciclopedia Navarra (d.g.) Mina, Sal. Gran Enciclopedia de Navarra. Berreskuratuta: http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=14422

Gatazka nagusiak

- 1972ko ekainaren 23an hasi zen greba MINAren enpresan. Egun batzuk lehenago, Haragi Industrien Hitzarmenaren inguruko negoziazioak ez ziren arrakastatsuak izan. Horregatik, langileek grebarekin erantzun zuten ekainaren 26an eta 27an. 150 grebalariei lana eta soldata kendu zizkieten, horren guztiaren ondorioz, gatazkak hainbat aste iraun zuen. 16 kaleratze izan ziren. 40 egunen ondoren, abuztuaren 7an, Sindikatuen Ordezkaritzaren bitartez, langileek aldarrikapen batzuk lortu zituzten. Enpresak 13 langile eten zituen, 3 arduradun kategoriaz jaitsi eta 104 langileri zigorrak ezarri eta greba-egunei zegozkien soldatak kendu zizkien. Neurri horiei erantzuteko eta protesta gisa, haragi-industrietako 25 ordezkariek dimisioa eman zuten (Iriarte Areso, 1995, 135-136).
- 1973 eta 1975eko urtarileko greba orokorretan parte hartu lanuzteak eginez.

21. Irudia: Mina



Iturria: Huarteko Arte Garaikideko Zentroaren webgunea, <https://www.centrohuarte.es/de-la-antigua-fabrica-de-mina-al-centro-de-huarte-investigacion-curatorial/>

| 18. MOCHOLÍ | |
|-------------------------|---|
| Historia laburra | Mocholí Noainen instalatutako altzari enpresa bat zen. 1991tik gaur egun arte, Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Zentroak hartzen du Mocholi kokalekua (Giménez Gil, 2012, 190). |
| Sektorea | Altzarigintza |
| Kokapena | Noaingo poligonoa |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none">• Lan-etenaldiak egitetik 1973ko greba orokorrean parte hartzera igarotzea pasa zen. |

| 19. MOTOR IBÉRICA | |
|--------------------------|--|
| Historia laburra | Ibilgailu industrialak eta nekazaritzako makinak egiten zituen enpresa Noainen zegoen, Iruñetik 7 km-ra, eta 210 langile zituen. |
| Sektorea | Metala (Nekazaritzarako ibilgailuak) |
| Kokapena | Noaingo Poligonoa, Egun Unicarriers Manufacturing Spain S.A. |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1971ko azaroa. Zuzendaritzak produktibitate handia eskatu zien langileei eta ezinegona eragin zuen langileen artean. Era berean, kategoriak berriz ere baloratu ziren, eta horrek hainbat langileren maila jaistera ekarri zuen. Protestan ari ziren langileek egun batez gelditzea erabaki zuten, eta, ondorioz, enplegu- eta soldata-zigorra jaso zuten 6 egunez. Langile ordezkariak dimisioa eman zuten, baina 1972an beste behin aukeratu zituzten. • 1972ko azaroa. Langileek txandaka lan egiteari uko egin zioten eta lanaldi jarraituan lan egiten jarraitu zuten. Txandaka lan egiteari uko egiteko eskubidea azaldu zuen zinpekoa kaleratu egin zuten. Hori dela eta, 4 greba egun egin ziren elkartasuna adierazteko. Magistraturan epaiketa irabazi zuten, enpresak langilea berriro onartu zuen eta langileen soldatak igo ziren. • 1973ko apirilaren 3an, Manuel Fernández Marquez izeneko langile bat hil zuten Bartzelonan, apirilaren 7an elkartasuna adierazteko langile guztiak ordu batez lanuztea egin zuten (ORT, 1975, 128). |

| | |
|--|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko Motor Ibericaren greba maiatzaren 8an hasi eta ekainaren 26an amaitu zen. Egun horietan, ekainaren 14tik 22ra, Nafarroako lehen greba orokorra egin zen (Iriarte Areso, 1995, 149-164; Gonzalez de Andres, 2017). |
|--|--|

| 20. NORTON | |
|-------------------------|---|
| Historia laburra | Estatu Batuetan jatorria duen enpresa. Norton Clipper marka liderra izan da duela 50 urte baino gehiagotik. Makineria eraikitzen eta mantentzen zuen eta eraikuntzaren industria irauli zuen munduko diamante soldaduzko lehen diskoa asmatu ondoren ³⁰ . 1967. urtean, Iruñeko Norton harri-fabrikak lehen aldiz ireki zituen ateak ³¹ . |
| Sektorea | Metala |
| Kokapena | Gipuzkoa errepidea (Berriobeiti) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko urtarrilaren 8an hasi zen gatazka. Hainbat langile kaleratu zituzten. Huarteren bahiketaren eraginak eta enpresako zuzendariak jaso zuen ETaren gutun anonimoak erraztu egin zuten langileek aldarrikapenak lortzea eta kaleratutako langileak urtarrilaren 23an lanera itzultzea. |

³⁰ *Historia de Norton Clipper.* (d.g.). Norton Abrasives. Berreskuratuta: <https://www.nortonabrasives.com/es-es/historia-de-norton-clipper>

³¹ *50 Años Construyendo Nuestra Historia.* (2017/XII/17). Saint Gobain Abrasives. Berreskuratua: <https://www.saint-gobain-abrasives.com/es-es/recursos/art%C3%ADculos/50-anos-construyendo-nuestra-historia>

| | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> • 1973 eta 1975eko urtarileko greba orokorretan parte hartu zuten lanuzteak eginez elkartasuna adierazteko. |
|--|---|

22. Irudia: Norton



Iturria: Vista aérea de las instalaciones industriales de Norton en Berrioplano (1972). Nafarroako Artxibo Orokorreko Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3723

| 21. ONENA | |
|--------------------------------|---|
| <p>Historia laburra</p> | <p>Atarrabiako paper fabrika 1846an sortu zen. Handitu eta hainbat titulartasun aldatu ondoren, 1929an Onena S.L. jaio zen. 1941ean, Papelera Españolaren mende egoteari utzi eta instalazioak berritu ziren. 1960 eta 1970 artean 750 langile izan zituen eta enpresa liderra izan zen sektorean. Hor hasi zen gainbehera progresiboa, 1981ean ordainketa-etenduran amaitu zena, 1988an Viatchi multinazional amerikar batek erosi eta 1993an Ingosarekin bat egitea. Azkenik, 1994an Atarrabiako instalazioak ixtea. Ingosak Ibirikura eraman zuen bere</p> |

| | |
|-------------------------|--|
| | fabrika, eta gaur egun, berriz ere, «Onena Bolsas de Papel S.A.» izena du ³² . |
| Sektorea | Arte Grafikoak |
| Kokapena | Ribed parkea (Atarrabia) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1970ko martxoaren 12an, enpresak 24 orduko geldialdia egin zuen, eta greba bihurtu zen. Horren guztiaren arrazoia zen enpresak uko egin ziola soldata 1.000 pezetara igotzeko egindako eskaera aitortzeari. Martxoaren 21ean 320 langile zenbatu ziren soldata-mugen aurkako borrokan. Tope horiek apurtzea lortu zuten (Iriarte Areso, 1995, 79). • 1973. Enpresa honen gatazkaren arrazoia soldata igotzeko eskaera izan zen. Plantillako 326 langileetatik 238k parte hartu zuten, eta langabeziak 26 egun iraun zuen; ondorioz, 49.504 lanordu galdu ziren. Gatazka hori alderdien arteko akordio bidez amaitu zen, elkarri kontzesioak eginez. • 1973ko eta 1975eko urtarrileko Greba Orokorretan parte hartu lanuzteak eginez elkartasuna adierazteko. |

³² La Fábrica de Papel de Atarrabia-Villava (2020/XI/26). Ondaregia. Berreskuratuta: <https://ondaregia.com/la-fabrica-de-papel-de-atarrabia-villava/>

23. Irudia: ONENA



Iturria: Onena en 1940. Ondaregia webgunetik berreskuratuta 2022/06/09an

22. PAMPLONICA

Historia laburra

Pamplonicaren jatorria 1927an dago, familia jarduera hasi zenean. 1931n, "Bernardo Villanueva Reta El Pamplonica" sozietatea sortu zen Iruñean, eta hirurogeita hamarreko hamarkadan, izen hori "Pamplonica"ra laburtu zen. 1987an, Villanueva familiak, enpresaren akziodun nagusiak, horren kontrola inbertitzaile berrien talde bati utzi zion, Madrilgo Mercapital, finantza-sozietatea buru zela, %25arekin. Hispano-Americano bankua eta "Cubiertas CMZ" eraikuntza enpresa zeuden akziodunen artean³³. 2010ean Pamplonicak hartzen zituen eraikinak eraisten hasi ziren eta gaur egun bertan Iruindar Orfeoaren Parkea dago³⁴.

³³ Gran Enciclopedia Navarra (d.g.) Corporación Alimentaria Ibérica. *Gran Enciclopedia de Navarra*. Berreskuratuta: http://www.encyclopedia.navarra.com/?page_id=7381

³⁴ Europa Press. (2010/XII/2). Ha comenzado el derribo del edificio del secadero El Pamplonica ubicado junto a la avenida de Zaragoza. *20 minutos*. On-line. Berreskuratuta: <https://www.20minutos.es/noticia/891623/0/>

| | |
|-------------------------|--|
| Sektorea | Harakintza (Hestebeteak) |
| Kokapena | Zaragozako etorbidea, egun Iruñeko Orfeoia ren Parkea (Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1970ko maiatzaren 9an 200 langilek idazki bat aurkeztu zuten soldata igotzeko eskatuz. 12an administrariak bat egin zuten. Enpresako zuzendaritzak negoziazioa maiatzaren 21era arte atzeratzea eskatu zuen. Hala ere, langileek grebara joateko zuten asmoa ikusita, maiatzaren 15ean bildu ziren eta igoera bat lortu zuten (ORT, 1975, 56-57). • 1971eko uztaila. 36 eguneko greba. Grebaren arrazoia eguneko 22 pezetako soldata igoera eskatzea izan zen. Langabezia gertatu zen bitartean, hamar kaleratze izan ziren, eta berriz onartu zituzten, hilabeteko enplegu eta soldatako zigorrarekin. Azkenean, eguneko 14 pezetako igoera lortu zuten. • 1973 eta 1975eko urtarrileko greba orokorretan parte hartu lanuzteak eginez elkartasuna adierazteko. |

24. Irudia: Iruñeko Pamplonica enpresaren aireko bista.



Iturria: Iruñeko Pamplonica enpresaren aireko bista. Argazkia Nafarroako Artxiboko web orrian kontsultatua 2022/06/10. Pamplonica: ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_1930

25. Irudia: Zaragoza hiribideko Pamplonica fabrika airetik ikusita.



Iturria: Vista aérea de la fábrica de embutidos Pamplonica en la avenida de Zaragoza. (1983). Iruñeko Udal Artxiboaren Fototeka. AMP002693.

26. Irudia: Pamplonica Zaragoza etorbidean



Iturria: Pamplonica Zaragoza etorbidean (1969). Iruñeko Udal Artxiboaren Fototeka. U0160548.

| 23. PAPELERA DE NAVARRA | |
|--------------------------------|--|
| Historia laburra | Papelera de Navarra, paper kartoi uhindua eta eduki handiko zakuak ekoizten eta saltzen zituen enpresa zen. 1956an sortu zen, Huarte taldeak lagunduta. 1961ean Suediako SCA Svencka Cellulosa enpresa sartu zen akziodunen artean eta enpresa nafarraren zuzendaritza teknikoaren ardura hartu zuen. 1971n, Banco Urquijo Unionez erosi zuen Suediako konpainiaren pakete nagusia, Banco Hispano-Americanoren filiala, 1987an akziodun nagusia izaten jarraitzen zuena. Papelera de Navarrak bi lantegi izan zituen Nafarroan: Zangozan eta Cordovillan ³⁵ . |
| Sektorea | Arte Grafikoak |

³⁵ Gran Enciclopedia Navarra (d.g.) Papelera Navarra. *Gran Enciclopedia de Navarra*. Berreskuratuta: http://www.enciclopedia.navarra.com/?page_id=16239

| | |
|-------------------------|--|
| Kokapena | Zaragozako etorbidea, 3 k.m., egungo Smurfit Kappa (Cordobilla, Galar). |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1970eko martxoaren 3an, langileek idazki bat sinatu zuten soldata igoera eskatuz. Martxoaren 7an, batzordeak enpresaren erantzunaren berri eman zien langileei eta grebara joatea erabaki zuten. Martxoaren 11n, zuzendaritzak erabaki zuen ez zuela inolako komunikazio-biderik izango langile batzordearekin. Langileek lanera itzultzea erabaki zutenean, enpresak zenbait langileri zigorrak ezariko zituela iragarri zuen. Horregatik, grebak martxoaren 12ra arte jarraitzeko erabakiari eutsi zioten. Ondorioz, enpresak jakinarazi zuen ez zela inolako kaleratzerik eta zigorrik egonen (Iriarte Areso, 1995, 79). • 1973. Langileek lanuzteak egin zituzten hitzarmenaren negoziazioa ematen ari zen bitartean presio egiteko. Ondorioz, plantillako 273 langileetatik 180 gelditu ziren 23 egunez. • 1973 eta 1975eko urtarrileko greba orokorretan parte hartu lanuzteak eginez elkartasuna adierazteko. |

27. Irudia: Papelera de Navarra



Iturria: Vista aérea de las instalaciones de Karpan Papelera Navarra en Cordovilla. (1972) Nafarroako Artxibo Orokorreko Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3788

| 24. PERFIL EN FRÍO | |
|---------------------------|--|
| Historia laburra | Profil bereziak eta hodi soldatuak egiten zituen enpresa zen. 1953ko martxoan sortu zuen Huarte Taldeak. 1974tik, Industriako Institutu Nazionalak (INI), Ensidesaren bidez, kapital sozialaren % 80 kontrolatzen zuen eta kapitalaren beste %20 esku pribatuetan zegoen. Nafarroan 1987an bi lantegi zituen: Iruñea eta Berriobeiti. Iruñeko fabrikak 340 langile zituen data horretan eta Berriobeitikoak 180, beraz, 520 langile zeuden Nafarroan ³⁶ . |
| Sektorea | Metala (Profilak eta hodiak) |
| Kokapena | Santa Engrazia Kalea (Arrotxapea-Buztintxuri, Iruñea) |

³⁶ Gran Enciclopedia Navarra (d.g.) Perfil En Frío, S.A. *Gran Enciclopedia de Navarra*. Berreskuratuta: http://www.enciclopedia.navarra.com/?page_id=16628

Gatazka nagusiak

- 1972an lan-etenaldiak egin zituzten elkartasuna adierazteko, A.P. IBÉRICA-n egiten ari ziren grebagatik.
- 1973ko greba orokorrean parte hartu zuten lanuzteak eginez.
- 1974ko abenduaren 11an lanuzteak egin zituzten

28. Irudia: Perfil En Frio



Iturria: Perfil en Fríoren argazkia Gran Enciclopedia de Navarratik berreskuratua 2022/06/09an.

29. Irudia: PERFIL EN FRÍOko industria planta



Iturria: Planta industrial de Perfil en Frío (1965). Iruñeko Udal Artxiboaren Fototeka. U0130468.

| 25. PORCELANAS EL NORTE | |
|--------------------------------|--|
| Historia laburra | 1957an sortua Iruñean, Irabia markarekin. Portzelana zuria egiten zuen, bai dekoraziorako baita ostalaritzarako ere ³⁷ . Mahaiko baxerak eta portzelana apaingarriak egiten zituen lan-sozietate anonimoa. 2000ko urtarrilean itxi zen. Garai hartan 187 langile zituen eta COMEPOR izenarekin funtzionatzen zuen ³⁸ . |
| Sektorea | Portzelana |
| Kokapena | Barañain Etorbidea (Mendebaldea, Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko greba orokorrean parte hartu zuten lanuzteak eginez. • 1974ko abenduaren 4an, langileak gelditu ziren hitzarmenen borrokaren gatazka-testuinguruagatik (ORT, 1975, 238). • 1974ko abenduaren 11an lanuzteak egin zituzten |

³⁷ Muez, M. (2000/1/03). Los «platos rotos» de Ponsal. *El País*. On-Line hemeroteca. Berreskuratuta: https://elpais.com/diario/2000/01/03/paisvasco/946932011_850215.html

³⁸ Aguirre Sorondo, A. (2002). Concha Laca. Artista de la Porcelana. *Euskonews & Media* Berreskuratuta: https://www.euskonews.eus/artisautza/0429zbk/Historia_es.html

30. Irudia: Porcelanas del Norte



Iturria: Vista aérea de las instalaciones industriales de Porcelanas del Norte en Pamplona (1972). Nafarroako Artxibo Orokorren Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_2958

26. POTASAS

Historia laburra

Potasas de Navarra 1960ko apirilean eratu zen, baina ekoizpena ez zen 1963-1964 arte hasi. Industria Institutu Nazionalarena (INI) zen, eta hark zituen potasaren ekoizpenaren eta salmentaren kontrola. Nafarroako enpresa bakarra izan zen 2000 langile baino gehiago izan zituena. Hasieran, Nafarroak meatzaritza-tradiziorik ez zuenez, langile gehienak meatzaritza-historia Zuten Espainiako eskualdeetakoak ziren: Asturias, Almeria, Ciudad Real eta Leon³⁹. Denborak aurrera egin ahala, nafarrak izan ziren gehienak. 1984ko otsailean, meategia agortu zenez, enpresa ixteko agindua eman zen, eta 1985eko azken egunean gauzatu zen, enpresak 650 langile zituenean. Nafarroako Potasen Sozietate Likidatzaileak hartu zuen bere gain sozietate berria eratu

39 N. (2022/1/3). Historia de la minería en Navarra. *Geocali*. Berreskuratuta: <https://www.geocali.com/historia-de-la-mineria-en-navarra/>

| | |
|--|--|
| | arte, lau hilabete geroago, Subizako meategi berri bat ustiatzeko ⁴⁰ . |
| Sektorea | Meatzaritza. |
| Kokapena | Berriain |
| <ul style="list-style-type: none"> Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> 1970eko azaroaren 3an. Urriko ordainsariaren inguruko aldarrikapenen ondorioz, Berriaingo eta Esparzako putzuak grebara joan ziren azaroaren 3an. Falta zen dirua lortu zuten eta azaroaren 6an itzuli ziren lanera (ORT, 1975, 54; Diaz Monreal, 2013). 1971ko martxoaren 8tik martxoaren 24ra. 16 greba egun. Batzarrean hautatutako ordezkariak zuzendaritzarekin istripuei eta gaixotasunei buruzko kontzeptuak negoziatzen dsaiatu ziren. Langileek greba mugagabea egin zuten, baina martxoaren 24an lanera itzuli behar izan zuten, lorpen handirik gabe (Iriarte Areso, 1995, 120-121). 1973ko apiriletik maiatzaren 14ra. Aldarrikapen ekonomiko aldeko eta zigorren aurkako greba, 30 egunez. Grebak iraun zuen bitartean langileek piketeak egin zituzten eta zigor ekonomikoak jaso zituzten. Maiatzaren 14an, gatazkan galdutako soldatak berreskuratzeko neurriak berriro landu eta negoziatu zituzten(Iriarte Areso, 1995, 148). 1974ko otsaileko itxialdia. Bi langileren (Ibarrola eta Muñoz) kaleratzearen ondorioz 300 langilek itxialdia egin zuten. Itxialdiak otsailaren 4ra arte |

⁴⁰ Gran Enciclopedia Navarra (d.g.). Potasas De Subiza. *Gran Enciclopedia de Navarra*. Berreskuratua: http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=16979

| | |
|--|---|
| | <p>iraun zuen. Hilaren 11n, hainbat negoziazioren ondoren, lanera itzuli ziren, baina enpresak beste langile batzuk zigortu zituenean Espartzako eta Beriango langileak gelditu ziren. 14an lanera bueltatu ziren nahiz eta espedienteek aurrera egin.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1974ko udazkeneko mobilizazioak (Iriarte Areso, 1999). • 1975eko urtarrileko itxialdia eta greba orokorra. 47 langile 15 egunez meategian giltzapetu ziren, eta itxialdiak urtarrilaren 21era arte iraun zuen (Pérez Ibarrola, 2019). |
|--|---|

31. Irudia: Potasas de Navarra



Iturria: 1950-1960ko Potasas de Navarrako lehen ustiapen irekiaren argazkia. Beriango putzua. Geocalcali webgunetik berreskuratua 2022/06/08an.

32. Irudia: Potasas de Navarraren hondakinen Teleferikoa.



Iturria: 1960-1970ko Potasas de Navarra S.A. Hondakinen Teleferikoa. 1960–1970. Geocalci. Geocalci webgunetik berreskuratua 2022/06/08an.

33. Irudia: Iruñeko Potasa fabrikaren aireko bista



Iturria: Iruñeko Potasa fabrikaren aireko bista. Nafarroako Kulturaren Atari Digitala webgunetik lortutako argazkia 2022/06/08an berreskuratuta.

| 27. SAFAR | |
|-------------------------|---|
| Historia laburra | 1958an SAFAR marka sortu zen, kalitatezko euskarriak eta mahukak egiten zituzten, artisauen eskuzko doitasunez eta zorroztasunez eginak ⁴¹ . |
| Sektorea | Metala |
| Kokapena | Sadar kalea (Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1975eko urtarrileko greba orokorrean parte hartzeagatik enpresako langile guztiak kanporatuak izan ziren urtarrilaren 16an. |

34. Irudia: Sadar futbol-zelaia eta Safar enpresa bere aurrean



Iturria: Vista aérea del campo de fútbol del Sadar de Pamplona. (1972). Nafarroako Artxibo Orokorreko Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3829

⁴¹ Soportes Safar. (d.g.). Safar Soportes. Berreskuratuta: <https://www.safar.es/>

28. SUPER SER

| | |
|-------------------------|---|
| Historia laburra | <p>Ignacio Orbaicetak, enpresako zuzendariak, berogailuekin merkaturatzen zuen Super Ser marka. Salmenten arrakastaren ondoren, Cordovillako eraikin berri batera lekualdatu zen, eta 1963ko uztailaren 25ean inauguratu zen. Hirurogeiko hamarkadan, Ignacio Orbaicetak produktu sorta hozkailuetara dibertsifikatu zuen. Enpresaren hedapenak 70eko hamarkadan beste fabrikatzaile batzuk erostera eraman zuen: Agni (berogailuak), Corcho (sukaldeak) eta Crolls (garbigailuak). 1.500 langile ingururekin, Superser Nafarroako hirugarren enpresa izan zen enplegu bolumenari dagokionez, Authi automobil fabrikaren eta Potasas meategiaren atzetik.</p> <p>80ko hamarkadako industria-krisiaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak Super Ser erosi zuen, eta Safel izena hartu zuen. 1984an, ekoizpena Ezkirozko lantegi berrira lekualdatu zen, eta Bosch Siemensi saldu zitzaion 1989an. Superserreko eraikina Nafarroako Gobernuaren jabetzapean geratu zen, eta bertan Porcelanas del Norte enpresa instalatu zen Irabia markako produktuak fabrikatzeko 2001etik 2006ra. Ondoren, Nafarroako Artxibo Garaikidea, suhiltzaileen parkea eta Barne Departamentuaren bulegoak hartzeko erabili zen zati batean⁴².</p> |
| Sektorea | Metala (Etxetresna elektrikoak eta bestelakoak) |

⁴² Superser: La historia de una fábrica, la historia de Navarra. (2018/X/27). Finanzas. On-line. Berreskuratuta https://www.finanzas.com/coyuntura/superser-la-historia-de-una-fabrica-la-historia-de-navarra_13934926_102.html

| | |
|-------------------------|--|
| Kokapena | Zaragoza etorbidea, 23, (Cordovilla, Galar) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1969ko maiatzaren 17an hasi zen Super Ser enpresaren lehen greba enpresako zuzendaritzak fabrikatzeko denboren sistema aldatzearen ondorioz. Kaltetuetatik 17 langilek erritmo zaharrean lan egin zuten. Enpresak soldatarik gabeko lau eguneko zigorrarekin erantzun zien langile horiei. Langile guztiak elkertasunean gelditu ziren. Zuzendaritzak negoziazioak etenez eta lantegia itxiz erantzun zuen. Lan egin gabeko egunak ordaintzeko eta zigorrak baliogabetzeko akordioa lortu zen. Hobekuntzak indarrean jarri ez zirenez, maiatzaren 26an berriro gelditu ziren. Enpresak 542 kaleratze tramitatzen hasi zen. Negoziazioen ondorioz, ekainaren 19an lan-normaltasunera itzuli zen (Iriarte Areso, 1995, 69-70). • 1971an lau gatazka eta lanuzte egin zituzten. Iraupen luzeeneko gatazkak soldata aldarrikapen gatazkak ziren. Ordubeteko eta eguneko grebak desberdinak egiten zituzten, 1092 langiletik erdiak baino gehiagok lanuztea egin zuen. • 1972ko urriaren 30ean hitzarmenen negoziazioaren testuinguruan sortu zen gatazka. Azaroaren 2an, zuzendaritzak proposamen txikiagoa egin zuen diru-kopuruan, ordezkariak eskatutakoarekin alderatuta. Era berean, langileek jakin zuten poliziak hainbat ordezkariaren etxeak bisitatu zituztela. Azken horren eta zuzendaritzak egindako proposamenaren ondoren, egunero 7 orduz gelditzea erabaki zuten. Azaroaren 6an, negoziazio |

| | |
|--|---|
| | <p>berri baten eta lortutako igoera handiagoaren ondoren, lanera itzultzea erabaki zuten (ORT, 1975, 113-114).</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1972an lan-etenaldiak egin zituzten elkartasuna adierazteko, A.P. IBÉRICA-n egiten ari ziren grebagatik. • 1973ko apirilaren 3an, Manuel Fernández Marquez izeneko langile bat hil zuten Bartzelonan, apirilaren 6ean elkartasuna adierazteko langile guztiak bi orduz lanuztea egin zuten (ORT, 1975, 128). • 1973ko greba orokorrean parte hartu zuten, lan-etenaldiak eginez, eta protagonistetako bat izan ziren gainerako enpresei elkartasuneko deialdiak egiteko, manifestazioak, piketeak, barrikadak eta errepide-mozketak mugiarazteko eta gidatzeko. • 1974ko azaroaren 14an, Super Ser enpresako langileak langabeziara joango ziren enpresako zuzendaritzak langileekin hitzarmenak ez negoziatzearen ondorioz (ORT, 1975, 231). • 1974ko abenduaren 11an lanuzteak egin zituzten. • 1975ko urtarrileko greba orokorrean eta manifestazioetan parte hartu eta lanuzteak egin elkartasuna adieraziz |
|--|---|

35. Irudia: Super Ser



Iturria: Gallek egindako Super Ser fabrika zaharraren argazkia (1966). Iruñeko Udal Artxiboaren Fototeka. Signatura: U0010159.

36. Irudia: Diario de Navarra egunkariaren eta Super Serren airetiko bistak



Iturria: Edificios de Diario de Navarra y de la antigua Super Ser en la avenida de Zaragoza (1984). Iruñeko Udal Artxiboaren Fototeka. AMP002765.

29. TORFINASA

Historia laburra

Landabengo industrialdean instalatutako enpresa zen, auto eta kamioien helbideak eta automobilentzako

| | |
|-------------------------|--|
| | <p>osagarriak fabrikatzen zituena. 1953an sortu zen Imenasatik (Industrias Metálicas de Navarra S. A.) abiatuta, Grupo Huarte konpainiaren eskutik. Landaben eraiki zenean, 1966 inguruan, bere instalazioak industrialdera eramane ziren. 1987an, TRW Inc multinazional iparramerikarraren jabetzako kapital sozialaren ehuneko ehunaz jabetu zen. Horregatik, enpresaren izen ofiziala TRW Torfinasa da⁴³.</p> |
| Sektorea | Metala (Autogintza, direkzioak eta autoentzako osagarriak) |
| Kokapena | Landabengo poligonoa, D kalea (Iruñea) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1972ko azaroaren 30etik 1973ko urtarrilaren 18ra arte. 1972ko azaroan hitzarmenaren negoziazioa egin zen. Langileak ez zeuden ados zuzendaritzak egindako proposamenengatik eta jasandako mehatxuengatik. Lan-geldialdi batzuk egitea erabaki zuten, eta, ondorioz, zigorrak ezarri zitzaizkien. 1972ko abenduaren 4an, langileen batzarrean erabaki zen grebara joatea. 1973ko urtarrilaren hasieran, Trofinasako langile gehienak kaleratuak izan ziren greba egiteagatik. Enpresak uko egin zion langileak berriz onartzeari, horregatik, urtarrilaren 17an langileak Arrotxapeko El Salvador elizan giltzapetu ziren. Bi orduko itxialdiaren ondoren, ETAko komando batek Felipe Huarte bahitu zuen. Askatzeko baldintzak langileek eskatzen zituzten aldarrikapenak onartzea eta 50 milioi pezetako erreskatea ziren. Langileek itxialditik |

43 Gran Enciclopedia de Navarra | TORNILLERÍA FINA DE NAVARRA S. A. (s. f.). Gran Enciclopedia de Navarra. Berreskuratuta: http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=19565

| | |
|--|---|
| | <p>atera eta lanera sartzea erabaki zuten, zuzendaria askatu arte. Hitzarmena langileek eta bahitzaileek askapenerako eskatzen zituzten neurriekin sinatu zen. Geroago, enpresak ez zuen inolako lan-neurririk bete derrigortuta egin zirelako aitzakiarekin. Felipe Huarte askatu ondoren, langileek beste behin negoziatu zuten. Nahiz eta ekoizpen erritmoak handitu ziren soldata igotzea eta lan egutegia hobetzea lortu zuten (Iriarte Areso, 1995, 136-138 eta 146-148)⁴⁴.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1973ko apirilaren 3an, Manuel Fernández Marquez izeneko langile bat hil zuten Bartzelonan, apirilaren 7an elkartasuna adierazteko langile guztiak 2 orduz lanuztea egin zuten(ORT, 1975, 128). |
|--|---|

37. Irudia: Torfinasa



Iturria: Torfinasako eraikinaren argazkia Gran Enciclopedia de Navarratik berreskuratuta 22022/06/08an.

⁴⁴ FDMHN-FDMHP. Jesús Comes Azcáratei egindako elkarrizketa (24/06/2016). FDMHN-FDMHP. Bixente Serrano Izkori egingandako elkarrizketa (04/07/2016).

38. Irudia: Torfinasaren airetiko bista



Iturria: Vista aérea de las instalaciones industriales de Torfinasa en el polígono de Landaben en Pamplona (1972). Nafarroako Artxibo Orokorreko Fototeka: ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3776

| 30. UNION CARBIDE | |
|--------------------------|--|
| Historia laburra | Enpresa 1967an sortu zen Ororbian, Unión Carbide Navarra izenarekin ⁴⁵ . Labe elektrikoetarako elektrodoak fabrikatzen zituen ⁴⁶ . |
| Sektorea | Kimika |
| Kokapena | Ororbia (Oltza) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none">• 1974ko azaroaren 16an, Unión Carbideko enpresako langileak lanuzteak egin zituzten enpresako zuzendaritzak langileekin hitzarmenak |

⁴⁵ Ororbia, I. (2009/X/8). Graftech Ibérica de Ororbia invierte 35 millones en una nave de producción. *Diario de Navarra*. On-line. Berreskuratuta: <https://www.diariodenavarra.es/archivo/actualidad/20091008/navarra/graftech-iberica-ororbia-invierte-35-millones-nave-produccion.html>

⁴⁶ Gran Enciclopedia Navarra (d.g.) Unión Carbide Navarra S.A. *Gran Enciclopedia de Navarra*. Berreskuratuta: http://www.encyclopedianavarra.com/?page_id=19955


| | |
|--|---|
| | <p>ez negoziatzearen ondorioz. Geldialdi horien ondorioz, zigorrak jasotzen dituzte(ORT, 1975, 232).</p> <ul style="list-style-type: none">• 1974ko abenduaren 11an lanuzteak egin zituzten.• 1975ko urtarrilean Potasaseko meatzarien grebagatik elkartasuna adierazteko gelditu ziren. |
|--|---|

39.Irudia. Union Carbide



Iturria: Unión Carbide fabrikaren argazkia Gran Enciclopedia de Navarratik berreskuratuta 2022/06/08an.

40. Irudia: Union Carbide airetiko bista




Iturria: Vista aérea de las instalaciones industriales de Unión Carbide en Ororbia. (1972). Nafarroako Artxibo Orokorreko Fototeka. ES/NA/AGN/F432/FOT_FOAT_3881

| 31. VILLANUEVA | |
|-------------------------|--|
| Historia laburra | Venancio Villanueva, S.A. 1954an sortutako familia-enpresa txiki eta ertaina da, txerri- eta behi-haragiarekin ondutako hestebeteak egiten espezializatua ⁴⁷ . |
| Sektorea | Harakintza (Hestebeteak) |
| Kokapena | Zangozako Merindadea kalea, 18 (Burlata) |
| Gatazka nagusiak | <ul style="list-style-type: none"> • 1974ko apirilaren 25ean hasi zen gatazka, 47 langileetatik 44k ordubeteko lanuztea egin zutenean soldata igoerak lortzeko. Enpresak ukatu egin zuen eskaera, ondorioz, lanuzteak errepikatu egin ziren. Azkenean, 47 langileetatik 37 kaleratu |

⁴⁷ Catálogo de exportadores de Navarra - Venancio Villanueva S.A. (d.g.). Club de Marketing de Navarra. Berreskuratua: <http://export.navarra.net/paghtml/venvi.htm>

| | |
|--|---|
| | <p>zituzten maiatzaren 14an. Authi eta Villanuevako langileek batzar bateratua egin zuten Burlatako parrokia batean, bi borrokak bateratzeko. Villanuevako gatazkak uztail osoan jarraitu zuen. Lan-magistraturak desegokitzat jo zuen 38 langileren kaleratzea eta onartuak izan ziren. Horren ondoren, gatazka hasieran itzuli zen: soldata-igoeren aldarrikapenak. Negoziazioak eman ziren bitartean, langileek presio egiteko, uztailaren 27an, 49 langileetatik 38 lantegian giltzapetu ziren. Uztailaren 29an utzi zuten lantegia, Guardia Zibilak kanporatu ondoren. Gatazka soldata igoerarekin eta kaleratzerik gabe konpondu zen.</p> |
|--|---|


1. Mapa: Iruñerriko lantegien kokagunea, zenbakituta



Egileek egina. Interneten eskuragarri: <https://memoria-oromena.unavarra.es/fabricas>

- | | |
|------------------------|--------------------------|
| 1. A.P Ibérica | 17. Micromecanic |
| 2. Authi-Seat | 18. Mina |
| 3. Bendiberica | 19. Mocholí |
| 4. Chalmeta | 20. Motor Ibérica |
| 5. Eaton Iberica | 21. Norton |
| 6. Frenos Iruña | 22. Onena |
| 7. Hifransa | 23. Pamplonica |
| 8. Ibéricas Del Frío | 24. Papelera De Navarra |
| 9. Ignacio Soria | 25. Perfil En Frío |
| 10. Indecasa | 26. Porcelanas Del Norte |
| 11. Industrias Esteban | 27. Potasas |
| 12. Imenasa | 28. Safar |
| 13. Inquinasa | 29. Super Ser |
| 14. Magnesitas | 30. Torfinasa |
| 15. Mapsa | 31. Union Carbide |
| 16. Matesa | 32. Villanueva |

1. Grafikoa: Fabriken Banaketa Sektoreka



Iturria: Egileek egina, dokumentuan izendatutako fabrika eta enpresak oinarri hartuta.

5. ANALISIA

Jarraian lantegiek eta haien kokapen espaziala edo geografikoak 1960ko eta 1970eko hamarkadako gatazken garapenean izan zuen garrantzia aztertuko dugu.

Alde batetik, lantegiak kontzientzia hartzeko eta langile identitatea eratzeko esparrua izan ziren. Izan ere, lantegietan esplotazio esperientziak bizi izan ziren. Garai hartako fabriketan ekoizpen eredu fordistaren arabera lan egiten zen; nekazal eremutik etorritako langile berrientzat modu honetara egokitzea zaila izaten zen. Horren ondorioz, langileek arazo berriak pairatu zituzten, lan-esperientzia kolektibo eta partekatuak sortu ziren. Horrela, nahiz eta profil eta ezaugarri desberdinak zituzten langileak zeuden, hala nola, inolako kualifikaziorik gabeko emigranteak, Nafarroako edo estatuko beste probintzia batzuetatik etorritakoak, Iruñean Lanbide Heziketako ikasketak zituzten gazteak... Horien guztien errealitateak fabrikaren eta lanaren errealitatean eta esperientzian bidez berdintzen ziren.


Lantegiez gain, auzoak ere langileak sozializatzeko eta haien esperientziak partekatzeko espazio giltzarri bilakatu ziren. Langile-auzoak, sarri, hiriaren erdialdetik geografikoki eta soziologikoki bereizirik zeuden. Gainera, urbanismo edo hirigintzaren aldetik ezaugarri propioak eta komunak partekatzen zituzten. Hau da, periferian kokatzen ziren, populazio homogenoak ziren non Nafarroako eta estatuko beste probintzia batzuetako etorkinak eta industria-sektoretako langileak ziren nagusi eta hirigintzako zein zerbitzu arazoak zituzten. Iruñerrian honako hauek izan ziren 1960eko eta 1970eko hamarraldietako langile-auzo garrantzitsuenak: Txantrea, Arrotxapea, Sanduzelai, Arrosadia, Etxabakoitz eta Donibane. Arrazoi horiek direla kausa fabrika zein auzoa mobilizazio plataforma gisa proiektatu ziren, borrokak bultzatzeko eta alternatibak saiatzeko.

Lantegien kokapen geografikoak berak langile mugimenduaren antolaketa bera ere baldintzatu zuen, izan ere CCOO bera, hots langile mugimenduaren erakunde nagusi eta bizkar-hezur izan zena eremuen (gazteleraz *zona hitza* erabiltzen zen) arabera antolatu zen. Iruñerrian, lau eremu edo *zona* nagusi eratu ziren: Landabengo poligonoa, Zaragoza etorbidea, Aretako poligonoaren *zona* eta Zentroa. Landabengoak Landaben eta Sanduzelai aldeko lantegiak elkartzen zituen, besteak beste, Authi, Eaton edo bestelako lantegiak. Zaragoza etorbideko eremuak hiriaren hegoaldeko lantegiak (Papelera, Super Ser, Pamplonica, Potasas edo Motor Iberica, esaterako) elkartzen zituen. Inquinasa, Zaragozako etorbidean ez egon arren, *zona* horretan sartzen zen. Areta poligonoaren eremuan, aldiz, Iruñerriko ipar-ekialdeko lantegiak koordinatzen ziren. Kasu batzuetan, Iruñerriatik aparte zeuden lantegiak ere zonaren araberrako antolaketa honetan sartzen ziren. Irunberriko Argal hestebete lantegia edo Zubiriko Magnesitas, esaterako, Aretako zonan antolatzen ziren⁴⁸. Zentroko zonaldean, aldiz, gehientsuenak merkataritzako lantokiak (sarri emakumeak ziren), banka,

⁴⁸ FDMHN: Marife Burguete Zubilagari elkarrizketa. Antsoain (2022ko martxoaren 29a).

Procelanosa del Norte eta Chalmeta elkartzen zituen⁴⁹. Zonalde horiek guztiak CCOOren idazkaritza (*secretariado*) baten bidez koordinatzen ziren.

2. Mapa: Iruñerriko Langile Batzordeen (CCOO) zonen araberako antolaketa



Iturria: Egileek egina

Bistan denez, langile gehien zituzten lantegiak, Imenasa bezalako salbuespenak izan ezik, hiriaren periferian kokaturik zeuden. Langile mugimenduaren sektore gatazkatsuenak lantegi horiek ziren, batik bat metalaren sektorekoak. Horrek langile gatazkaren garapena baldintzatzen

⁴⁹ FDMHN: Carmen Lizarragari elkarrizketa. Antsoain (2022ko martxoaren 29a). FDMHN: Charo Larraiotz Oskotz Antsoain (2022ko apirilaren 12a).

zuen. Landabengo langileek greba egiten zutenean, manifestazioak poligonotik bertatik ateratzen baldin baziren zailtasun handiak zituzten zentroraino iristeko. Lantegien kokapen espazialagatik (Landabenen) asko kostatzen zitzairen zentrorira iristea, poliziak Portale Berriko zubitik errepidea mozten bazuen, istiluak Cuatro Vientos eta Arrotxapea inguruan izaten ziren sarri. Esate baterako, 1970eko Industrias Esteban lantegiko greban (ORT, 1975, 45-49)⁵⁰.

Manifestazioak izaten zirenean, aldiz, zentroan zein periferian izaten ahal ziren. Zentroan izatekotan Alde Zaharra baliatzen zuten manifestazioak abiatzeko. Hainbat kasutan, Nabarrerian hasten ziren edota Gaztelu plazan hasten zirela dokumentatu dugu. Beste batzuetan botere guneen aurrean protesta egiten zuten, Gobernu Zibilaren parean (Merindadeen Plazan) edota Sindikatu Bertikalaren egoitzaren aurrean (Zaragoza Etorbidean). Frenos Iruñako grebaren garaian, esaterako, Manifestazioa jendetsua izan zen, 800 pertsona bildu ziren Erakunde Sindikalaren atean, eta handik, isilik eta espaloietatik, Gobernu Zibilera eta Gaztelu plazara joan ziren. Periferian izaten baziren, poliziaren jazarpena saihesteko izaten zen. Arrotxapean oso ohikoa izaten zen El Porrón ostatuaren gurutze-bidea baliatzea manifestazioak eta istiluak abiatzeko.

Mobilizazioek greba orokorren forma hartzen zutenean, hots ez ziotenean bakarrik lantegi konkreturen bati eragiten, lantegi handietako langileez gain beste gizarte sektore batzuek ere parte hartzen zuten. Horrelakoetan periferiako lantegi handiak lantegietako langileez osaturiko piketeek ixten zituzten. Baina lantegi garrantzitsuenak periferian egon arren, grebak izaten zirenean, zentroko zonako militanteek grebaren arrakastarako paper oso garrantzitsua betetzen zuten; izan ere, zentroko merkataritzako emakumeek itxiarazten zituzten erdialdeko dendak⁵¹.

⁵⁰ FDMHN: Manuel Martorell Pérez (Antsoain, 7/VI/2022).

⁵¹ FDMHN: Carmen Lizarragari elkarrizketa. Antsoain (2022ko martxoaren 29a). FDMHN: Charo Larraiotz Oskotz Antsoain (2022ko apirilaren 12a). FDMHN: Mentxu Belasko. Antsoain (2022ko apirilaren 26a).

6. DESINDUSTRIALIZAZIOA ETA LANTEGIEN DESAGERPENA

Espainiako testuinguru ekonomikoaren sarrera labor bati dagokionez, diktadurak bi zati bereizi izan zituen. 1950eko hamarkadaren amaierara arte, eredu ekonomikoa industria-sektorean monopoliorako joera zuen autarkia izan zen. Izan ere, ikerketa honetarako diktaduraren bigarren fase ekonomiko desarrollista interesgarriagoa da, emandako industrializazio prozesu garrantzitsuarengatik.

Sektoreen banaketak aldaketa handiak izan zituen, nekazaritzak indarra galdu zuen industriaren eta zerbitzuen aldean. Nafarroak berezko garapen ekonomikoa jasan zuen erakundeen ezaugarri berezi eta propioengatik. Nafarroako Foru Diputazioak, 1964an, Lehen Garapen Planarekin Industria Sustatzeko Programa sortu zuen, ekonomia modernizatzeko eta industria siderurgikoa babesteko. Landabengo poligonotik hasi eta Iruñea industrializazioaren erakargune bihurtu zen. Hala ere, beste eragin-eremu hauek nabarmentzen ziren: Antsoain, Galar, Uharte, Noain eta Oltza (Iriarte Areso, 1995, 27-43).

Motore gisa jardun zuen industria-sektoreak, enpleguaren eta ekoizpenaren aurreko egitura eraldatu zituen, eta orduan desoreka sortu zuen sektoreen artean. Izan ere, bigarren mailako jarduerak (eraikuntza barne) gehiegizko nagusitasuna hartu zuten, eta ondoren hirugarren sektoreak pisu gutxiagorekin. Metalezko industriek protagonismo handia hartu zuten, eta 1970eko hamarkadaren ondoren, Nafarroako fabrika-industriaren ia erdiak elikadura-industria eta industria kimikoa polarizatu zituzten. Bigarren maila batean, papera, prentsa eta arte grafikoak inbertsio eta lan sortzaile bihurtu zen (Martinez Chacon, 1993).

**1. Taula. Nafarroako biztanleria aktiboaren sektorekako banaketa
(ehunekotan), 1940-1986**

| | 1940 | 1950 | 1960 | 1970 | 1980 | 1986 |
|-------------------|------|------|------|------|------|------|
| 1.Sektorea | 56,7 | 53,7 | 41,5 | 25,3 | 14,8 | 13,3 |
| 2.Sektorea | 19,7 | 22,6 | 30 | 42,1 | 45,2 | 40 |
| 3.Sektorea | 23,6 | 24,7 | 28,5 | 32,6 | 40 | 46,6 |

Iturria: MAJUELO GIL, Emilio, PASCUAL BONIS, Angel: 1991.

1955etik aurrera, lehen sektoreko biztanleria aktiboak behera egin zuen eta manufaktura-industrietan etengabeko hazkundera gertatu zen, biztanleria aktiboa lehen sektoretik bigarren sektorera aldatu baitzen. 1964tik biztanleria aktiboaren ehuneko handiena enplegatzen zuen sektorea izan zen. Hirugarren sektoreak joera progresiboa erakusten zuen (Iriarte Areso, 1995, 37-39).

1970ko hamarkadatik aurrera, munduko eta Espainiako agertokietan industria-produkzioaren beherakada, enpleguaren jaitsiera eta langabeziaren fenomenoaren agerpena, atzeraldi ekonomikoa gertatu ziren. Nafarroan ezberdintasun batzuk eman ziren, enpleguak gora egin baitzuen industria sektorean 1977ra arte, eta hortik bakarrik hasi zen murrizketa motela. Hamarkadaren altuera horretan, oraindik ere industria-produkzioaren pisuak, eraikuntza barne, hirugarren sektorearena gainditu zuen. Bigarren talka energetikotik aurrera soilik areagotu zen industria enpleguen galera, eta 1983an sektoreak garrantzia galdu zuen produktu globalaren osieran eta lan-eskarian.

Laburbilduz, 1978tik 1984ra arte Nafarroan jaso zen industria-krisiaren alderdi negatiboa. Bigarren sektorearen enpleguaren beherakadak, gainera, zerbitzu-jardueren desinternalizazio-prozesua islatu zuen, nahasketa bat bigarren eta hirugarren sektoreen artean. Eskulanaren teknologia eta kualifikazio-eskakizunek industria-enpresa asko mugiarazten zituzten beste enpresa espezializatu batzuei, zerbitzuen sektorean sartuta zeudenei, ordura arte industriako langileek egindako zenbait funtzio eta jardura eskatzera. Horren ondorioz, 1981 eta 1983 bitartean, Nafarroako ekonomiaren hirugarren sektoreak enpleguaren hazkundera eragin zuen.

1980ko hamarkadaren bigarren erdian landunen kopura handitu zen, eta erdia baino gehiago bigarren sektorean sortu ziren. Fenomeno hori bat etorri zen hirugarren sektorean gertatzen zenarekin, eta agerian utzi zuen bi sektoreen artean ez zegoela ordezkapen-harremanik soilik, zerbitzuen hazkundea ez zen industriaren kontura gertatu, nolabaiteko elkarrekintza eta osagarritasuna gertatu zen (Martinez Chacon, 1993, 351-353).

Gaur egun, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan jardunean zeuden lantegi asko itxita daude edo beste enpresa batzuek erosi zituzten edo beren poligonoetan mantentzen dira. Atal honetan, langile gehien zituzten lantegietako batzuei buruz hitz egingo da labur-labur, baita lantegi horietako batzuen birmoldaketa berezienei buruz ere.

Landabengo industrialdefik hasita, leku honek funtzionatzen jarraitzen du, baina jada ez daude garai hartako enpresak. Batzuk mantendu dira, baina beste izen batzuekin, hala nola, Authi. 1975ean enpresak porrot egin zuen eta SEATEk erosi zuen. 1986tik aurrera, Volkswagenek SEATen erabateko kontrola hartu zuen gaur egun arte. Volkswagen Nafarroa, Volkswagen Taldeak mundu osoan dituen 120 lantegietako bat da. Nafarroako enpresa garrantzitsuenetako bat da, langile asko biltzen baititu: 2021ean 4625 langile zenbatu ziren⁵². Eatonekin jarraituz, gaur egun lantegi honetan Dana izeneko enpresa bat dago, ibilgailuen fabrikazioareki jarraitzen duena lan egiten⁵³. Torfinasari dagokionez, leku berean mantentzen da, 1987an, TRW Inc multinazional iparramerikak enpresaz jabetu eta izen ofiziala TRW Torfinasa izatera pasa zen jarduerari eutsiz⁵⁴. Indecasaren kasuan, 1973ko urrian langileek greba orokorra eta fabrika okupatu zuten, hala ere, abenduan fabrikak porrot egin eta itxi zen (Gimenez Gil, 2012, 127). Ignacio Soria, Nadeco, Iberica del Frío... bezalako fabrika gehiagok partekatzen dute komentatutako

⁵² Quiénes somos. (d.g.). Volkswagen Navarra. Berreskuratuta: <https://vw-navarra.es/nuestra-fabrica/quienes-somos/>

⁵³ AIN Asociación de la Industria Navarra. (2021). Dana Automoción, S.A. Berreskuratuta: <https://www.ain.es/empresas/asociados/dana-automocion-s-a/>

⁵⁴ Gran Enciclopedia Navarra (d.g.) Tornillería Fina De Navarra S. A. *Gran Enciclopedia de Navarra*. Berreskuratuta: http://www.encyclopedianavarra.com/?page_id=19565

fabrika berezi horien bilakaera. Horretaz gain, gaur egun, denda txikiak, biltegiak, enpresak, supermerkatuak eta jatetxeak daude zonalde honetan.

Era berean, eraitsi ondoren haien ordezkariak parke handiak eraiki zituzten baina fabrikaren kasua aipatzea garrantzitsua da: Imenasa eta Pamplonica. Alde batetik, 1989ko martxoan 14an, Barañaingo etorbidean eta Errioxa kalean, 40 urte baino gehiagoko jardueraren ondoren, Imenasako fabrika zaharra eraisteko lanak hasi ziren⁵⁵. Horren ordezkari Oriol Bohigas plaza eta Yamaguchi parkea eraiki ziren. Garai hartan Taconeran, Larraina Klubaren atzean, Planetarioa eraiki behar zen, baina Gobernuak antzinako Imenasaren orubean ere eraikitzea erabaki zuen⁵⁶. Handik gertu, Porcelanas del Norte Carrefourreko merkataritza-gune bihurtu zen. Iruñeko Yamaguchi parkea 1997an inauguratu zuten, eta, hala, hiriko industria-jardueraren arrasto oro ezabatu zuten.

Bestetik, 2010ean Pamplonicak hartzen zituen eraikinak eraisten hasi ziren eta 2014an "Iruindar Orfeoien Parkea" izeneko parkea eraiki eta Lezkairu zein Arrosadia urbanizatzeko obrak amaitu zituzten⁵⁷. Handik gertu, Super Ser, azalera eta Iruñerriko langile gehien hartzen zituen lantegietako bat, eta bere jarduera beste toki batera eraman ondoren, hainbat jarduerak hartu zituzten lekua eta azpiegiturak, Irabia markako piezak egiten zituen Porcelanas del Norte enpresak kasu. Gaur egun ere aldaketak izaten jarraitzen du eraikin honek, eta Nafarroako Biltegi Arkeologikoak eta Artxibo Garaikideak hartzen dute. Azalera horretan Diario de Navarra egunkaria eta suhiltzaileen parkea ere badaude.

Atarrabiako fabrikak, Onenak, 1960tik 1970era 750 langile izan zituen. Ondoren, gainbehera progresiboa hasi zen, eta Viatechek (multinazional

⁵⁵ A. (2021/III/11). Cuando cambió... la avenida de Barañain. *Diario de Navarra*. On-line. Berreskuratuta: <https://www.diariodenavarra.es/noticias/navarra/pamplona-comarca/2021/03/11/cuando-cambio-avenida-baranain-719837-1002.html>

⁵⁶ Albillo Torres, C. (2015/I/25). *Pamplona, año a año: 1989–1990–Memorias del Viejo Pamplona*. Berreskuratuta: <https://memoriasdelviejopamplona.com/2015/01/pamplona-ano-1989-1990.html>

⁵⁷ Europa Press. (2010/XII/2). Ha comenzado el derribo del edificio del secadero El Pamplonica ubicado junto a la avenida de Zaragoza. 20 Minutos. On-line. Berreskuratuta: <https://www.20minutos.es/noticia/891623/0/>

amerikarra) erosi zuen 1988an, Ingosarekin bat egin zuen 1993an, eta, azkenik, Atarrabiako instalazioak itxi zituen 1994an, Ingosa lantegia Ibircura eramanez. Instalazio horien hondarrak daude: harrizko tximinia, batana konponduta, Ultzama ibaiaren gaineko presa eta batana gainerako instalazioekin lotzen zuen akueduktuaren zati txiki bat. Lursailen zati handi bat parke bihurtu da, Ribed familiari eskainia eta aisialdirako eta atsedenerako gune gisa balio duena⁵⁸.

1986an Nafarroako Potasas desagertu zen, birmoldaketa-prozesuaren ondoren (putzu batzuk ustia-ezinak ziren jada), Subizako potasa-aztarnategiaren ikerketa eta putzu hori irekitzeko langile borroka izugarriari esker (greba orokor bat barne), 1986an Potasas de Subiza (POSUSA) jaio zen, bere aurreko plantillaren heren batekin, 1997an itxi zuten arte 650 langile ingururekin. Meatze-instalazioak itxi ziren, eta ez zen inolako zaharberitze-lanik egin ez fabrika-instalazioetan, ez eta meatze-hondakinen hondakindegietan ere; beraz, ingurumenean eragin kaltegarriak agerikoak dira. Horrela, ura hartzeko erabili ziren zabortegiak eta putzuak, hala nola La Morea (Berriainen) eta Zolina (Aranguren ibarrean), bere lekuan daude⁵⁹.

Meatzaritzako azken azpiegiturak eraitsi ondoren, langile asko ez daude ados erabateko eraispinarekin. Haien nahia putzuetatik gertu dauden egiturak mantentzea da, Nafarroako meatzaritza eta iragan industrialak zer izan zen irudikatzeko, eta langile mugimendua eta langile guztien eta haien familien borroka eta bizitza gogoratzea. Industrializazioaren eta langileen borrokaren ikur izan zena gogoratzea⁶⁰.

Iruñeko hirian zeuden beste enpresa batzuk, hala nola Bendibérica, Chalmeta, Frenos Iruña, Perfil en Frío... itxi eta desagertu egin ziren, edo hiritik

⁵⁸ *La Fábrica de Papel de Atarrabia-Villava (I)*. (2020/XI/26). Ondaregia. Berreskuratuta: <https://ondaregia.com/la-fabrica-de-papel-de-atarrabia-villava/>

⁵⁹ S. (2020/VIII/3). 6. *Minería de potasas y afecciones en las aguas (capítulo del informe del agua)*. Fundación Sustrai Erakuntza. Berreskuratuta: <https://fundacionsustrai.org/6-mineria-de-potasas-y-afecciones-en-las-aguas-capitulo-del-informe-del-agua/>

⁶⁰ Bernués, M. (2020/II/5). Un muro para el recuerdo. *Diario de Noticias*. On-line. Berreskuratua: <https://www.noticiasdenavarra.com/navarra/pamplona/2017/11/26/muro-recuerdo/709653.html>

kanpora industrialdeetara eraman zituzten. Hori desindustrializazioarekin eta tertziarizazioarekin batu dezakegu, batez ere 80ko hamarkadan gertatutakoa.

7. ONDORIOAK

Nafarroan 60ko hamarkadan gertatutako industrializazioak lurraldea ekonomikoki aberastea ekarri zuen, bigarren sektorearen hazkundera oinarrituta. Ez hori bakarrik, hiriburuan lantegi eta enpresa guztiak sortzeak eragin zuen jarduera ekonomiko oro Iruñean eta inguruetan kontzentratuta egotea. Era berean, hasitako industrializazio azkar horrek aldaketa sakonak ekarri zituen Nafarroako gizartean. Aldaketa horien guztien artean, Iruñean ezaugarri propioak zituen langile klase berri baten sorrera nabarmentzen da.

Ilido berean, langile klase berri horrek, lan-esperientzia berberak partekatzean, aldarrikapen antzekoak zituzten soldadari eta lan-baldintzen hobekuntzei dagokienez. Gatazkei hasiera ematen zieten kausak partekatzen zituzten eta greba tresna gisa erabiltzen zuten beren helburuak lortzeko. Era berean, gatazka guztiak ez ziren arrazoi ekonomikoengatik, greba asko agintarien errepresioari erantzuteko hasi ziren, baita lantegi eta enpresa ezberdinetako langileen arteko elkartasun gisa ere.

Hala ere, idazki honen helburua Nafarroak jasan zuen desindustrializazio bereziaren prozesua eta lurralde eta gizarte-ondorioak ikertzea eta hurbilketa txiki bat egitea izan da. Horretarako, lantegi horiek betetzen zituzten espazioak eta haien errealitateak identifikatu dira, Iruñeko eta inguruko mapa interaktibo bat eratu da. Egindako ikerketari esker, badakigu jarduera industrialak Iruñeko eremu desberdinen artean banatzen zela: Landabengo industrialdean, hirigunearen erdialdean, Zaragoza etorbidean, Aretako industrialdean eta beste zonalde batzuetan. Era berean, industria-jarduera metalaren, paperaren, elikagaien eta ehungintzaren sektoreen artean banatzen zen. Metalaren sektorea zen guztien artean ohikoena eta nabarmenena. Gainera, langile mugimenduaren sektore gatazkatuenak metalaren jardueran oinarritutako lantegiak ziren.

Aurreko gaira itzuliz, egun, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan sortutako enpresa batzuek jatorrizko industrialdeetan jarraitzen dute lanean, baina, jarduerari eutsi arren, horietako asko atzerriko beste enpresa edo multinazional batzuek erosi zituzten. Beste batzuk hiritik urrun zeuden lekuetara lekualdatu zituzten. Desagertutako lantegiei dagokienez, gaur egun ia ez dago horien guztien arrastorik. Espazio horiek hiriko hirigintzan integratu ziren parke edo etxebizitza-eraikin moduan.

Industria eta enplegu industrialak egon ziren lekuetan paisaia aldatu egin da eta ez da haren historia osoa ezagutzen. Desindustrializazioaren prozesuaren gaia ez da oso ohikoa ikerkuntzan eta gizarte-zientzietan. Fenomeno horren ondorioak ez dira kontuan hartzen. Industria-ondarearen berreskurapen eta erabilera ona ere ez da egin. Horren erakusgarri da gizarteak ez ezagutzea lantegi horiek hartu zituzten tokiak, eta gaur egun leku horietan ez egotea horren berri emateko inolako aztarnarik. Hau da, Yamaguchi parkea ez da betidanik existitu, jende gutxik daki espazio horretan zer zegoen parkea eraiki aurretik. Haren ordeztu lruñeko fabrika garrantzitsuenetako bat zegoen: Imenasa. Inguruan ez dago lantegi horren eta bizitako gertaera eta langile jarduera guztien berri ematen duen aztarnarik.

Enpresak ez ziren ekoizpen industrial eta ekonomikoko eraikin soilak, Nafarroako langile mugimenduaren historia eta familia askoren historia jasotzen zuten. Desindustrializazioaren gaia politika publikoetatik kanpo dago eta gehienetan memoria selektiboa da. Horregatik, iragana eta oroimena oraina direnez, bizitako espazio eta esperientzia horiek guztiak berreskuratu behar dira, erabateko ahanzturan erori aurretik.

8. ITURRIAK:

- BIBLIOGRAFIA

Altaffaylla Kultur Taldea (2018) [1986]. Navarra 1936: De la esperanza al terror. Tafalla: Altaffaylla Kultur Taldea.

Díaz Monreal, J.L. (2013) Las huelgas de Potasas, Ahaztuak.

Giménez Gil, I. (2012). ELA en Nafarroa: cien años de transformación y lucha (1911–2011) (p.127) (1.a ed.). Txalaparta

Gonzalez de Andrés, E. (2017). Programa, discurso y actuación del Partido Comunista de España (PCE) en la huelga general navarra de junio de 1973. *Gerónimo de Uztariz*, (33), 93-114.

Iriarte Areso, J. V. (1995). Movimiento obrero en Navarra (1967-1977): organización y conflictividad. Gobierno de Navarra, Pamplona.

Iriarte Areso, J. V. (1999). "Otoño caliente" en Navarra. La huelga general del 11 de diciembre de 1974. *Gerónimo de Uztariz*, (14), 105-121.

Iriarte, J. V. (1986). Aproximación a la conflictividad social de Navarra, 1970–1975. *Príncipe de Viana*, 177, 271–318.

Majuelo Gil, eta alli. (2021). Víctimas mortales de la represión en Navarra durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-1948). *Memoriapaper (ak): documentos de trabajo del Fondo Documental de la Memoria Histórica en Navarra= Nafarroako Oroimen Historikoari Buruzko Fondo Dokumentalaren langaiak*, (10), 1-70.

Martínez Chacón, E. (1993). La industria navarra en la segunda mitad del siglo XX. *Príncipe de Viana*, 15.

ORT, Comité Provincial de Navarra (1975): Historia del movimiento obrero navarro. 25 años en lucha, ORT, Pamplona.

Pérez Ibarrola, N. (2019). Mineros y obreros contra Franco: del encierro en la mina de potasas a la huelga general de 1975 en Navarra. In *Las huellas del franquismo: pasado y presente* (pp. 390-409). Comares.

Perez Ibarrola, Nerea (2017). *Langileria Berri Baten Eraketa. Iruñerria 1956-1976*, Gobierno de Navarra, Pamplona

Satrustegi Andres, I. (2022a). "Hicimos lo que había que hacer": la transición en Navarra desde abajo. In *La LORAFNA 40 años después: historia, balance y propuestas para una reforma* (pp. 103-124). Aranzadi Thomson Reuters.

Satrustegi Andres, I. (2022b). *Beste mundu bat nahi genuen. Nafarroako ezker iraultzailea, 1970-1979. Nafarroako Gobernu, Iruñea, 2022.*

- HEMEROTEKA

Diario de Navarra

Diario de Noticias de Navarra

20 Minutos: <https://www.20minutos.es/>

El País: <https://elpais.com/>

- FOTOTEKA

Nafarroako Fototeka: <https://www.fototecanavarra.es/eu>

Iruñeko Fototeka:

<https://archivo.pamplona.es/opac/index.php?codopac=OPB13>

- WEBGUNEAK

<http://export.navarra.net/paghtml/venvi.htm>

<http://www.edificioiwer.es/sobreiwer.aspx>

<http://www.encyclopedianavarra.com/>

<https://diccionario.motorgiga.com/>

<https://fundacionsustrai.org/>

<https://irunabrakes.com/es/>

<https://memoria-oroimena.unavarra.es/fabricas>

<https://memoriasdelviejopamplona.com/>

https://navactiva2013.wordpress.com/2005/04/04/frenos-iruna-invierte-8-millones-en-instalaciones-y-equipos-en-su_19629/

<https://navarracapital.es/>

<https://ondaregia.com/>

<https://vw-navarra.es/nuestra-fabrica/quienes-somos/>

<https://www.ain.es/empresas/asociados/dana-automocion-s-a/>

https://www.euskonews.eus/artisautza/0429zkb/Historia_es.html

https://www.finanzas.com/coyuntura/superser-la-historia-de-una-fabrica-la-historia-de-navarra_13934926_102.html

<https://www.geoalcali.com/historia-de-la-mineria-en-navarra/>

<https://www.infolibre.es>

<https://www.magnesitasnavarras.es/magnesitas-navarras/#nuestra-historia>

<https://www.mapsa.net/>

<https://www.nortonabrasives.com/es-es/historia-de-norton-clipper>

<https://www.safar.es/>

<https://www.saint-gobain-abrasives.com/es-es/recursos/art%C3%ADculos/50-anos-construyendo-nuestra-historia>

- Ahozko iturriak

FDMHN-FDMHP. Félix Jiménez Morales eta José de Carlos (23/08/2016)

FDMHN-FDMHP. Jesús Comes Azcárate (24/06/2016).

FDMHN-FDMHP. Bixente Serrano Izko (04/07/2016).

FDMHN-FDMHP. Martín Arbizu Goñi (21/06/2016).

FDMHN: Marife Burguete Zubilaga. Antsoain (2022ko martxoaren 29a).

FDMHN: Carmen Lizarragari elkarrizketa. Antsoain (2022ko martxoaren 29a).

FDMHN: Charo Larraiotz Oskotz. Antsoain (2022ko apirilaren 12a).

FDMHN: Mentxu Belasko. Antsoain (2022ko apirilaren 26a).

FDMHN: Carmen Lizarragari elkarrizketa. Antsoain (2022ko martxoaren 29a).

FDMHN: Charo Larraiotz Oskotz Antsoain (2022ko apirilaren 12a).

FDMHN: Mentxu Belasko. Antsoain (2022ko apirilaren 26a).

- Artxiboak:

Nafarroako Artxibo Garaikidea, ACN-NAG

<https://www.fondoscontemporaneosnavarra.es/eu/albisteak/nafarroako-artxibo-garaikideak-ostatu-hartu-proiektua-osatu-du>